



HEMEN POSSIBLE DA!
AU PAYS BASQUE C'EST POSSIBLE !

EHBairen programa politikoa
Programme politique d'EHBai



AURKIBIDEA

1.- EGOERARI BEGIRADA	7
Mundua bidegurutze batean	7
Euskal Herria bere burua gobernatu nahian	8
2.- BURUJABETZA, HEMEN ERABAKITZEKO	11
Autonomia Estatutua Ipar Euskal Herriarentzat.....	12
3.- HERRI PROIEKTU BAT, DENOK HOBEKI BIZITZEKO	15
Perspektiba ekosozialista	15
Bizi duina herritar guzientzat	17
4.- PROPOSAMEN TEMATIKOAK	19
Eredu ekonomikoa.....	20
Laborantza.....	26
Arrantza.....	33
Metamorfosi ekologikoa.....	35
Arlo soziala.....	40
Osasungintza.....	46
Lurra eta etxebizitza.....	50
Feminismoa	55
Euskara	59
Kultura.....	63
Hezkuntza	66
Harrera eta integrazioa	70
5.- KOOPERAZIOAN OINARRITURIKO IBILMOLDE PARTE HARTZAILEA	73
Hiru eremuren arteko prozesua	73
Euskal lurraldeen arteko lankidetzat	74
6.- EHBAI, ETORKIZUNA ERAIKITZEKO	75

AURKEZPENA

Munduan emendatzen ari diren krisialdiek Euskal Herria ere zuzenean hunkitzen dute. Garai historiko hauetan, sistema kapitalistak sortu duen ziurgabetasuna eta segurtasun eza gure biziaren eta paisaia politikoaren parte dira. Zibilizazio krisi larria bizi dugu eta ezin dugu gehiago zain gelditu. Beharrezkoa da eraldaketa sakon bat ematea, soluzio berriak proposatzea, gure eskuetan dagoena egitea, pertsona guziak hobe eta berdintasunean bizi gaitezen lurrarekiko errespetuan eta orekan.

Horregatik, EHBaik Euskal Herritik pentsaturiko eta Euskal Herriaren beharretara egokituriko proiektu bat proposatzen die herritar guziei. Bukatu gabeko egitasmoa da, denboran herritar sektore gehiagoren parte hartzearekin aberastuko dena, baina ortzi-muga argia duena: ahalik eta erabaki gehien gure herrian hartzea, gure bizien kontrola izan dezagun. Gurea proiektu eraldatzailea eta demokratikoa delako, pertsonak eta natura erdigunean ezartzen dituen, inor bazterrean uzten ez duena eta gure etorkizunaren lema euskal herritarren eta euskal eragileen erabakietan kokatzen dituen. Hemen bai, posible da. Egin dezagun elkarrekin.

1.

EGOERARI
BEGIRADA

MUNDUA BIDEGURUTZEAN

Egoera politiko globalari so eginez, zuzenean eragiten diguten garrantzia handiko gertakariak ikusten ari gara munduan. Orain arte eza-gutu dugun ordena neoliberalak ez da desagertu, baina **boterearen berbanaketa** bat bizitzen ari gara, Amerikako Estatu Batuak hegemonia ekonomikoa eta militarra galtzen ari baitira Hegoalde globaleko potentzia berrien aitzinean.

Emendatze sekuritarioa, baliabideen inguruko borrokak, irabazien gaineko etengabeko helburua, erlijioen arteko gatazkak, **militarismoak eta gerlek** boterearen lehia horretan baitezpadako papera betetzen dute egun. Ukrainako gerla edota Palestinako genozidioa dira lehen lerroan ageri direnak, baina ez dira munduan diren bakarrak. Nazioarteko zuzenbidea eragile boteretsuenen interesen aitzinean desagertzen ari da. Herrien zuzenbidea zapaldu dago nonahi. Gizateriaren geroak ere, berotze globala eta biodibertsitatearen suntsipenarekin, arriskuan jarririk, iduri du ez duela pisurik interes horientzat. Frantses Estatuak ez dio logika horri ihes egiten. EHBaik uko egiten dio amore emateari, eta herrien esku-bideen alde egiten du, elkartasunaren eta justizia sozialaren balio humanisten alde. Klima eta biodibertsitatea planetako ondasun komunak dira, babestu beharrekoak.

Mundua bidegurutze batean da eta Euskal Herrian, baliabideak gure esku nahi ditugu desafiario hauei aurre egiteko

Eredu kapitalistak **krisi ekologiko eta soziala** eragin ditu, natur baliabideen eta erregai fosilen neurrigabeko ustiapenean oinarrituriko sistema ekonomikoa zalantzan jartzeraino. Krisi ekosozialaren adierazle gordina larrialdi klimatikoa da eta honek, planeta suntsitu eta giza zein beste espezieen biziraupena ere arriskuan ezartzen du. Baliabideei edota urari loturiko gatazken emendatzea, klimari loturiko migrazio edota elikagaien krisiaren areagotzea ere horren lekuko dira.

Sistema kapitalistak muga biofisikoekin talka egitera eraman gaitu eta ez da beste alternatibarik: **urgentea da metamorfosi** ekologikoari ekitea, gure kontsumoa apaltzea, deskarbonatzea eta eredu produktiboa eraldatzea; hots, erregai fosilak erretzetik energia berriztagarrien erabilerara doan trantsizio energetikoa plantan ezartzea. Ekimena hartu ezean, alimaleko giza sufrimendua eragin eta erremediorik gabe hedatuko da krisi ekologikoa.

Inflazioa, prezioen garestitzea eta bizi mailaren apaltzea dira krisiaren adierazpen ekonomiko garrantzitsuak. Hori bultzatzen duten korporazio handiek egoeraz profitatu eta Estatuen boterea ahuldu dute, haien irabaziak emendatu dituzten bitartean. Aberastasuna badago, baina kapital metaketa gero eta gutiagoren eskuetan da.

Frantses Estatuak ere herritarren beharren segurtasuna bermatu behar zuen «kontratu soziala» hautsi du, krisi politiko eta soziala emendatuz. Gobernuak ez dituzte herritarren babesa, elkartasun kolektiboa eta bakoitzaren oinarritzko beharrak (elikadura, energia, etxebizitza, hezkuntza, osasuna...) segurtatzen. Haatik, egun zerbitzu publikoak pribatizatzen ari dira, austeritate politikak ezarri eta jendeen bizi-baldintzen okertzean eta prekarizazio prozesuan sakondu.

Krisi globalaren testuinguruan, **migrazio mugimenduak** goititzen ari dira. Iparraldeko herrialdeek ikuspegi sekuritario batetik buru egiten diote, mugak hetsi eta giza hondamendia eraginez. Zenbaitek fenomeno honen aitzinean ezikusiarrena egiten dute, beste batzuek mehatxu gisa hartzen duten bitartean, jarrera defentsibo eta erasokorrarekin, frantses Gobernuak egiten duen gisan. Guk pertsona ororen eskubideen defentsa eta honat heldu diren guziekin batera gure herriaren kohesioaren alde lan egitea hautatzen dugu. Hau da EHBairen posizioa.

Mundu osoan, **eskuin muturra** politika neoliberaletan sortu duten egoera sozialaz baliatzen da gobernuetara eta instituzioetara ailegatzeko. Beren burua ezkerrekotzat jotzen duten gobernuen politikengatik desengainaturik diren hautesleen egoera profitatzen du. Diskurtso xenofoboa eta arrazista ardatz, gobernuak politika sozial atzerakoiekin eta ekonomiko ultraliberaletan lerrokatzea bultzatzen dituzte. Frantses Estatuan ere hala gertatzen ari da eta Euskal Herria ere ez da egoera horretatik salbu.

Panorama honen erdian, **itxaropenerako seinaleak nabarmendu behar dira.** Izan ere, anitz dira herritarrei kontrol demokratikoa itzuliko liekeen jendarte eredu aurrerakoien aldeko mugimendu soberanista, independentista, ezkertiar, feminista eta ekologistak. Neurritsua, zuzena, berdinzalea, solidarioa, lurralde erresilienteetan birtokiratuak, tokiko nortasun inklusiboen aberastasun sozial eta kulturean oinarritua eta mundu mailako elkartasuna sustatzen duen jendarte ereduaren aldekoa, hain zuzen.

Estaturik gabeko nazioetan eramatan ari diren emantzipazio prozesuak dira itxaropenerako beste aldagaia. Euskal Herrian bezala, Korsikan, Kanakyn, Polinesian, Katalunian, Irlandan edota Eskozian indartzen ari diren mugimendu progresistak dira. EHBaik uste du mugimendu hauen emantzipazio dinamika, mundu osoko eta bereziki Europako mugimendu aurrerakoientzat inspirazio iturri izaten ahal dela.

Gaur gaurkoz, munduak norantz joko duen ez da jakiterik, baina **bidegurutze batean** dela erraten ahal da: aberastasunaren banaketan oinarritzen den eredu baterantz jo edo jendartearen pobretzea areagotu; gainekoizpen eta gainkontsumo ereduaren eraldaketa bultzatu edo jendartearen kolapso ekonomiko eta ekologikoaren egoera emendatu; demokrazia indartu edo autoritarismoranzko bide itsuan segitu. **Euskal Herrian, baliabideak gure esku nahi ditugu desafiario hauei buru egiteko.**

EUSKAL HERRIA BERE BURUA GOBERNATU NAHIAN

Zalantzarik gabe, Euskal Herriak egoera globalaren ondorio kaltegarriak pairatzen ditu. Parisetik, Madriletik, Bruselatik edota botere guneetatik hartzen diren erabakien menpe gara eta horrek lanjerrean ezartzen du gure etorkizuna. Nekez ulertzen ahal da bertako errealitatearekin eta herritarren beharrek bat egiten ez duten neurriak gurean inposatzea. Maluruski, ez dugu aski tresnarik erabakiak hartzeko eta herritarren ongizaterako politika publikoak plantan ezartzeko.

Ipar Euskal Herriko egoera

Ipar Euskal Herria erakargarri bilakatu da bereziki frantses Estatuko lurralde ezberdinetako herritarrentzat eta **demografia hazten ari da gure lurraldean.** Dinamika hau kostaldean kokatzen da nagusiki, barnekaldea populazioa galtzen doan bitartean. Honek, Ipar Euskal He-

rriko egoera linguistikoa, kulturala eta nortasuna baldintzatzen du, eredu sozioekonomikoa bera zalantzan ezarriz. Dinamika demografiko honek, biztanle berriak bertako errealitatean integratzeko erronka serioa hartzeko beharra agerian uzten du. Jarduera ekonomikoak nagusiki kostaldean finkatzea, inflazioa, etxebizitza eskuratzeko zailtasunen emendatzea, laborantza-lurren artifizializazioa, laborari kopuruaren apaltzea edota joan-etorrien biderkatzea eta ondorioz, berotegi-efektuko gasen isurtzeak handitzea aipatzen ahal dira.

Inportantea da ere gure **jendartearen zahartzaroan** fokua ezartzea. Azken hamabost urteetan 60 urtetik goitiko pertsonen kopurua anitz emendatu da Ipar Euskal Herrian. Aurreikuspenen arabera, hamar urteren buruan 20.000 lagun inguru gehiago izanen dira adin horretatik goitikoak. Horrek erran nahi du beharrak azkartuko direla eta adineko pertsonen zaintzarako, etxebizitzak egokitzeko, isolamenduari buru egiteko eta sektoreko langileen baldintzak hobetzeko lurralde gisa estrategia bat behar dugula.

Digitalizazioa eta adimen artifiziala aldaketa handiak eragiten ari dira gure jendarteetan. Batzuek aukera gisa ikusten dute, besteek mehatxu gisa, baina ukalezina dirudi digitalizazioak arlo ekonomikoan eta oro har gure bizietan aldaketa garrantzitsuak ekarriko dituela. Erronka horri lurralde gisa heldu behar diogu, manera demokratikoan, kanpoko interesen eta ikuskeraren globalen mende ez uzteko gure lurraldearen eta bertako jendearen biziaren garapena.

Autogobernatzeko borondatea

Ipar Euskal Herria bere burua antolatzeko eta gobernatzeko prozesu batean murgildua da Euskal Hirigune Elkargoa sortu zenez geroztik. Historikotzat hartzen dugun **aitzinamendu instituzionala** adostasun politiko eta sozial zein mobilizazio dinamika garrantzitsuen emaitza izan da. Nahiz eta frantses Estatuak estatus bereziko Lurralde Kolektibitate bat sortzearen

Hazkunde demografikoak, biztanle berriak bertako errealitatean integratzeko erronka serioa hartzeko beharra agerian uzten du

aldeko tokiko gehiengoaren nahia ez onartu, eta aldarrikaturikoa baino erakunde ahulago bat lortu dugun, aitzinamendu hori historikoa izan da. EHBairen ustez, lehen aitortza politiko bat finkatzen du eta lurralde mailako zenbait politika publiko plantan ezartzeko parada eman. Beharrezkoa da bide hori indartzea.

Halere, Euskal Hirigune Elkargoak **bere mugak erakutsi ditu**. Batzuk erranen dute sortu zenetik denbora gutiegi pasa dela urrunago joateko, beste batzuk gehiegi. Kontua da, lurraldean ditugun erronkei buru egiteko erabaki ahalmen eta eskumen urriak ditugula.

Gaur gazteriak bertan bizi, ikasi eta lan egiteko gero eta zailtasun gehiago ditu, bertako biztanleek etxebizitza eskuratzeko bezala; elikagaiak lortzeko ezintasuna duten jendeen kopurua emendatu da; lehen sektoreak sufritzen duen egoera larriari erantzun egokiak emateko baliabide askirik ez dugu; energiaren ikuspegitik multinazionalen menpeko izaten segitzen dugu; euskarak ez du babes legalik eta desagertzeko arriskuak bere horretan segitzen du. Kanpoko erabakien ondorioak hamaika dira gurean eta horregatik uste osoa dugu **soluzioak euskal eskalatik** etorri behar direla.

Euskal Herrian bada gure burua gobernatzeko borondate bat eta gainera, sektore guzietan **jendarte zibil antolatua** dugu, mobilizazio zabalen bidez eta hautetsiekin batera eraldaketa bultzatzeko prest agertzen dena. Euskal Herriak gai ezberdinetan erakutsi du ez duela bat egiten Parisen hartzen diren erabakiekin. Bake prozesua edo Abiadura Handiko Trenaren errefusa adibidea argiak dira. Frantses Estatua urratsak egitera behartua izan baita hautetsien gehiengoaren eta jendarte zibilarren galdeen aitzinean.

Lankidetzaren eredu hori biziki inportantea da, indartsuago egiten gaituelako eta gure etorkizuna eraikitzeko aukera hobekien eskaintzen dizkigulako. Demokratizazio prozesu bat gauzatzeko herri proiektu azkar bat sortu behar dugu, aitzinean ditugun desfioei elkarrekin aurre egiteko.

Euskal Herriak gai ezberdinetan erakutsi du ez duela bat egiten Parisen hartzen diren erabakiekin

2.

BURUJABETZA, HEMEN ERABAKITZEKO

Egoeraren irakurketatik abiatuz, EH Baik argi du Ipar Euskal Herrian etapa instituzional berria ireki eta garatu behar dela, **ahalik eta burujabetza maila handiena** izateko anbizioarekin. Gure helburua Euskal Herriaren emantzipazioa da. Zergatik?

- Zazpi lurraldez osaturiko nazio bat gare-lako: Lapurdi, Baxe Nafarroa, Xiberoa, Nafarroa Garaia, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia. Identitate propioa eta izaera komunitarioa duen giza talde bat gare-lako, mendeetan biziraun duten hizkuntza eta kultura amankomun bat dituen;
- Gure burua gobernatzeko eta gure geroa erabakitzeke gaitasuna ukaiteko, eredu politiko-instituzional berri baten bitartez;
- Elikaduran, energian, fiskalitatean, ekono-

mian, arlo sozialean, teknologian, euskara zein kultur arloan edota osasun zerbitzuetan erabakiak bertatik bertara hartzeko eta egungo desfioei tokiko eskalatik aurre egiteko;

- Jendartea prestatua dagoelako. Aukera dagoen guzietan, dinamika eta proiektu ezberdinekin, Ipar Euskal Herrian alternatibak sortzen dira eta jendarteko sektore zabalak inplikatzen dira horietan.

Frantses Estatu zentralista da, lurraldeak bere autoritatearen menpe atxiki nahi dituen. Alta, azken hamarkadetan hainbat aldaketa izan dira eta estatus maila ezberdinak integratu ditu bere Konstituzioan, horien artean Autodeterminazioa, Autonomia edota Lurralde Kolektibitateak. Lurralde edo nazio errealitate ezberdinei erantzun bat emateko egokitzapen bat gertatzen ari da.

AUTONOMIA ESTATUTUA IPAR EUSKAL HERRIARENTZAT

Beraz, gaur, XXI. mendean, frantses Estatuaren koadroaren barnean posible da legez eredu instituzional ezberdinak plantan ezartzea. Ipar Euskal Herrian fase berri batean garelarik, EHBaik uste du aitortza politikoaren esparruan aitzinatu behar dela. **EHBaik Ipar Euskal Herriarentzat Autonomia Estatutu bat** proposatzen du, banaezinak diren bi helbururekin: burujabetza nazionala eta pertsonen zein kolektibitatearen zerbitzura izanen den jendar-tea eraikitzea.

Autonomia estatus batera iristeko, bi urrats egin behar dira:

- Frantses Estatuarekin Euskal Herriaren oinarrizko berezitasunak kontuan hartuko dituen **akordio politiko bat** formalizatzea, zeinak Ipar Euskal Herriko herritarren onarpen demokratikoa beharko duen.
- Akordio honen baitan, **frantses Konstituzioan Euskal Herriaren aipamen berezitua egingo da** eta lege organiko bat plantan ezarri Autonomia estatusaren ezaugarriak finkatzeko.

EHBairen iduriko, Ipar Euskal Herria eta frantses Estatuaren arteko **akordioak hiru oinarri bermatu behar ditu:**

- Ipar Euskal Herriko herritarren erabakitze eskubidea errespetatzea.
- Euskararen estatus ofizialaren ezagupena eta egiazko hizkuntza politika.
- Zazpiak bat existentzia eta zazpi herrialdeak integratzeko bokazio legitimoa aktatu.

Frantses Estatuan indarrean diren estatus instituzional ezberdinek erakusten dute arriskua dagoela tresna eraginkorrik gabeko "autonomia" plantan ezartzeko. Horregatik, ezinbestekoa da **ahalmen legegileak eta fiskalak** ukaitea. Hau da, botere legegilea eta fiskalitate sistema berezi bat.

Ahalmen hauek konpetentzia multzo zabal batean aplikatuko dira, Ipar Euskal Herriak dituen desafio ekonomiko, sozial, kultural eta ekologikoei modu eraginkor batean erantzun ahal izateko. **Konpetentzia hauek** aipatu akordioan jaso eta frantses Estatuarekin negoziaturik, transferentzia prozesu bat abiatuko da.

EHBai prest da jendarte zibilarekin eta hautetsiekin batera mobilizazio zabalaren fase berri bat irekitzeko

AUTONOMIA ESTATUTUAREN KONPETENTZIAK

- > Lurralde antolaketa.
- > Hirigintza.
- > Errepide, trenbide, portu eta aireportu azpiegiturak.
- > Garapen ekonomikoa.
- > Enplegua, hitzarmen kolektiboak, insertzio profesionala.
- > Etxebizitza eta bizilekua.
- > Laborantza eta oihanak.
- > Turismoa.
- > Energia.
- > Ingurumena.
- > Hondarkinak.
- > Uraren kudeaketa.
- > Arlo sozial eta sanitarioak.
- > Mendi politika.
- > Itsasoko politika publikoa.
- > Irakaskuntza (lehen, bigarren eta goi maila), ikerketa, formazio profesionala.
- > Gazteria eta kirola.
- > Kultura eta ondarea.
- > Ikus-entzunekoen eta hedabideen politika.
- > Gizon-emazteen arteko berdintasuna.
- > Segurtasun publikoa (polizia municipal).
- > Segurtasun zibila eta arriskuen kudeaketa.
- > Mugaz gaindiko lankidetzak.
- > Barne antolaketa administratibo eta instituzionala.



EHBaik etapa instituzional berri bat irekitzeko tenorea dela uste duen honetan, herritarrei eta eragileei anbiziozko erronka hau aurkezten die, denen arteko iritziekin lurraldearentzat proiektu berri bat sor dezagun.

Ipar Euskal Herria egituratzen ari da, erronka berriak ditu eta ondoko urrats instituzionalak hori guziaz kontuan hartu beharko du. 2012ko Estatus Bereziko Lurralde Kolektibitatearekin izandako batasun izpirituari segituz, EHBaik uste du denon arteko kontsentsua beharrezkoa dela eta prest da jendarte zibilarekin eta hautetsiekin batera trantsiziozko egituren inguruan adostasunak eraiki eta mobilizazio zabalaren fase berri bat irekitzeko.

Bizi dugun testuinguru ezegonkor eta kritiko honetan, gure lurraldeak anbizioa erakutsi eta indar guziaz biltzen dituen inizatibak hartu behar dituela deritzogu.

3.

HERRI PROIEKTU BAT, DENOK HOBEKI BIZITZEKO

EHBairen ustez, krisi testuinguru hau aukera bat da Euskal Herrian demokraziaren aldeko parioa indartzeko eta justizia sozialaren bidean gure jendartea transformatzeko. Ezkerreko abertzaleontzat, egoera honi alternatiba batekin erantzun behar zaio: bizi hobego bat bermatzen duen herri proiektu bat.

PERSPEKTIBA EKOSOZIALISTA

EHBairentzat beste mundu bat posible da: pertsonak eta ekosistemak zaintzen dituen jendarte bat. Ildo horretan, kapitalismoaren alternatiba bat proposatzen du Ipar Euskal Herrian,

Norbanakoen berdintasuna eta asebetetzea permititzen duen jendarte bat irudikatzen dugu

ekologia eta jendartea batzen dituen **ikuspegi ekosozialista baterantz** eraldatzeko programa baten bidez.

Ipar Euskal Herriak bere eredu ekonomikoa berbideratu behar duela uste du EHBaik, eta ondasun materialak eta zerbitzuak ekoiztu behar dituela, biztanleriaren egiazko beharrei erantzuteko. Beste zerbait produzitu behar dugu, baina baita beste manera batez ere, klima aldaketaren aginduak kontuan hartzeko. Lana ere beste molde batez pentsatu behar da. Sozialki garrantzitsuak diren zereginak aitortuz (funtsezko ekoizpenak, etxeko lanak, ikasketak, herritarren engaiamenduak...), partekatuz, justuki ordainduak izateko eta hauek baldintza egokietan egiteko.



Beste molde batez kudeatzeko gai izan behar gara ere, biztanleak ekonomia eta jendarte hautuetan inplikatur; kudeaketa publiko, herritar eta ez ondasun komunen merkantilizazioaren bidez. Norbanakoen berdintasuna eta asebetetzea permititzen duen jendarte bat irudikatzen dugu. Emantzipazio hori antolamendu kolektiboaren, autogestioaren, lankidetzaren eta herritarren parte hartze demokratikoaren bidez bermatzen ahal da, ahalik eta eskala lokalenean.

Euskal Herriak hemen eta orain bertan jardun dezake — eta behar du —. Baina globalki ere pentsatu behar du. Dagokion erantzukizuna hartu eta, beste herriekiko elkartasunez, justizia klimatiko eta sozialeko mundu bat eraikitzeko prest izan behar da.

Gure proiektu abertzale, ezkertiar, ekologista eta feminista egungo behar eta erronkei erantzuteko alternatiba sendo bat da, behetik gorakoa, herrian sustraitua eta herriarentzat pentsatua



© Guillaume Fauveau

BIZI DUINA HERRITAR GUZIENTZAT

Bizi duina eta herritar guzientzat berdintasun soziala kausitzea da gure proiektuaren helburua. **Identitate propioa duen komunitate indartsu bat eraikitzea** baitezpadakoa dela uste dugu, euskal jendarteak dituen erronka garaikideei erantzun kolektibo baikorrak emateko. Kapitalismoaren krisiaren testuinguru honetan, geroa deszentralizazioa, birtokiratzea eta bere buruaren jabe izanen diren komunitate kohesionatu eta demokratikoak eraikitzea delako. Hemen, Euskal Herria da eskala.

Komunitate ireki eta elkarkide baten aldekoak gara, gure errealitate kultural, ekonomiko eta sozialari hertsiki lotua dena eta herritarrei segurtasuna eta babesa emanen die-na. Hala, **herritar guztien ongizatea helburu** izanen duen eredu inklusibo baterantz jo behar dugu, nehor gibelean edo bazterrean utzi gabe. Oinarrizko beharrak segurtatu beharreko eskubideak dira eta ondorioz, aberastasuna banatuko duen eredu justu batera eraman behar gaitu.

Eraldaketa sozialerako prozesu horrek sektore publiko azkar bat behar du, ekonomiaren sektore estrategikoak antolatzeke, eredu justu eta berdinzalea eraikitzeke eta ekonomia herritarren zerbitzura jarriko duten alternatibak sustatzeko.

Gure jendartea justu eta berdinzalea izanen bada, **система heteropatriarkala** gainditzea premiazkoa da. Egungo dominazio harremanak irauli behar dira, ikuspegi feminista eremu orotan txertatuz.

Euskara da gure naziotasunaren eta kulturaren osagai nagusietako bat eta integrazio sozialerako tresna egituratzailerlea. Eredu uniformizatzaileetatik urrun, kultur-aniztasuna errespetatuko duen herritar eleaniztunez osaturiko Euskal Herri euskalduna dugu xede.

Hain zuzen, **kultura** da herritarren ongizaterako beste ezinbesteko hanka. Pentsamendu kritikoa, ezagutza eta sorkuntzaren garapenak ekarpena egin behar dio gure lurraldeari eta herritar guztien esku izatea lortu behar da.

Zinez uste dugu gure proiektu abertzale, ezkertiar, ekologista eta feminista egungo behar eta erronkei erantzuteko alternatiba sendo bat dela, behetik gorakoa, herrian sustatua eta herriarentzat pentsatua.

4.

PROPOSAMEN TEMATIKOAK

EHBaik proposamen bideragarriekin erantzun nahi die lurraldeak eta biztanleek dituzten erronkei

Ipar Euskal Herria ziklo berri batean sartzea proposatzen dugu. Hori dela eta, gure lurraldeak arlo ezberdinetan behar dituen eskumenak, tresnak eta gaurko egoerari loturiko neurrien inguruko proposamenak finkatu ditugu. Hainbat neurri gaurdanik plantan ezartzen ahal dira eta beste zenbait tresna eraikitzeko trantsizio bat beharrezkoa izanen da, guk, trantsizio subiranista deitzen duguna.

EREDU EKONOMIKOA

Enplegua eta ekonomia mugimendu abertzalearen kezka nagusiak dira 60ko hamarkadan sortu zenetik.



Ipar Euskal Herrian, urte horietan, langabezia masibo bat izan zen. Modernizazio eta hedapen industrialaren erronkei buru egiteko tokiko industria ehunaren ahultasuna agerikoa zen.

1971n SOKOA enpresaren sorreran indartsuak izan ziren abertzaleek urrats boluntarista bat egin zuten jendarte zibileko eta sozio-ekonomia arloko eragileak gogoeta-guneen inguruan federatzeko eta eragile instituzionalengan eragiteko (erraterako, HEMEN elkarteak). Izan ere, enplegu prekarioak eta kalifikazio eskasekoak bultzatzen zituzten garapen turistikoan oinarrituriko botere publikoek.

Erronka zen lanaldi osoko lanpostuak sortzea,

iraunkorrak, eta kalifikazio zein gaitasun premia anitzekin, belaunaldi berrien exodoari erantzuteko. Abertzaleen diagnostikoak soluzio gisa planteatzen zuen tokiko enpresa sare bat sortzea (erabaki eta kapital guneak), ekonomia sektore guzietan dibertsifikatua enplegu eta enpresa guzien segurtasuna optimizatzeke. Baita parte hartze tresnen sortzea ere, hala nola, HERRIKOA inbertsio funtsa, lurraldeko eragile guzietan Ipar Euskal Herriko arraberritze ekonomikoa elkarrekin eraiki ahal izateko.

Abertzaleek hautsi egiten zuten garaiko pentsamendu nagusiarekin, lurraldearen garapen ekonomikoa kanpoko ekimen eta finantzaketan bidez baizik irudikatzen ez zuena.



© Guillaume Fauveau

Desafio berriei aurre egin

• Ipar Euskal Herria ekonomikoki erakargarria da egun, frantses Estatuko batez bestekoa baino enplegu-tasa handiagoarekin eta enplegua zein jarduerak sortzeko dinamika egiaztatu batekin. Honek biztanleriaren emendatzeari erantzutea permititzen du. Politika ultraliberalek bultzaturiko jarrerren indibidualizazioaren eraginez, populakuntzari ekintza kolektiborako edozein botere kentzen dion testuinguru batean bizi gara. Justuki, **lurralde mailako dinamika horren berezitasuna funtsezko baliabidea da geroa eraikitzeko eta gure burujabetza baieztatzeko.**

• **Bizi eremuen arteko desoreka demografiko eta ekonomikoa eredu ekonomikoaren erresilientziarako arazo garrantzitsua da, bai kostaldean bai barnealdean.** Gisa berean, Hego Euskal Herriarekiko harreman ekonomikoak haien ahalmenetik oso beheiti daude. Desoreka klimatikoaren eraginean dauden eta funtsezkoak diren sektore ekonomikoen, hala nola, turismoa edota laborantza-ren bilakaera, manera adostuan eraman behar da: gainturismoaren "lurraldearen kontsumo" eredutik, "lurraldearen partekatze" turismo baterako trantsizioak jarduera bat sortzen ahal du Euskal Herriko barnealdean, merkataritza hutsa gaindituko luke ten interakzioak bultzatuz. Bide beretik, Hego Euskal Herriko lurraldeetako ekonomiarekiko osagarritasun handiagoa bilatzea aktibo bat izan daiteke lurralde trantsiziorako.

• Etorkizuneko **iraultza teknologikoei aitzin hartu** behar diegu. Horien lehen lerroan adimen artifiziala garatu behar da, eta, aldi berean, erantzun azkarra eman behar zaie lan-baldintzen degradazioari eta langileen erosteko ahalmenaren murrizteari.

• Enpleguan eragiteko, instituzioek tresna eta dispositibo anitz ezarri dituzte egungo enpresei laguntzeko, jarduera ekonomikoak sortzeko eta lanbideheziketa laguntzeko. **Ipar Euskal Herriko lurraldean eragina izan dezaketen bost instituzioen** (Europa, frantses Estatuak, Akitania Berria Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Euskal Hiri-gune Elkargoa) **dispositiboak baliatuko ditugu, gure balioen zerbitzura jartzeko. Alta, ez gara horietara**

Abertzaleentzat, jarduera ekonomikoa lurraldean kokatzen da. Bere aktore guziekin eraikitzen eta gobernatzen da denentzat onuragarri izateko helburuarekin

mugatuko eta Euskal Herriaren zerbitzuko tresna berrien eraikitzeke lan egingen dugu.

Duela 60 urte gure aitzinekoek egin bezala, **gure garaiko erronkei aurre egin eta lurralde trantsizio proiektu zabal baten parte izanen den garapen ekonomikorako eredu bat eraiki behar dugu.**

Lurraldeko ekosistema ekonomiko bat sortu

Instituzio politiko, ekonomiko eta finantzarioek aldaketa klimatikoari eraginkortasunez buru egin eta bere ondorioak aurreikusteko erakusten duten inertzia tragikoa da. Kontraste gisa, herritarren eta jendartearen rola agerian uzten du, eragile guziak antolaketa sozial, ekonomiko eta politikoaren berrantolaketa sistemiko baten alde engaiatzera bultzatzeko.

Ipar Euskal Herrian, gure identitatea, gogoeta kolektiborako guneak sortzea eta interes orokorreko helburuen inguruan elkarlanean aritzeko gaitasuna dira mobilizazio horren eragile. EHBaik arlo ezberdinetako ekimenak sustengatzen ditu, hala nola: elikaduran (AMAP, kontsumitzaileen kooperatibak, laborari kolektiboak...), finantzen arloan (tokiko moneta, finantziario parte hartzaileak, kooperatibak), etxebizitzan (bizileku parte hartzaileak, ondasun komun gisa higiezin den jabegoa) edota energia berriztagarrien ekoizpean. Baina lan horrek lurraldearen metamorfosi ekologikoan eskala handian eragin dezan, **ezinbestekoa da ekosistema bat sortzea, ideiak, praktikak eta jokabideak hedatzea erraztuko duena.**

Bestalde, gure ekonomia ehuna askotarikoa da eta Ipar Euskal Herrian ekimen anitz daude bertokiratzea eta ekonomia zirkularra bultzatzeko, Eusko tokiko moneta, erraterako. Erresilientzia berme bat da, enpresak eta kolektibitateak saretzeko, trukaketak, baliabideen mutualizazioa eta hondakinen murriztea bultzatzeko. Trantsizioko ekonomia bat sortzen laguntzea da gakoa, eta eragile ekonomiko guziak ildo horretako ekimekin bat egin dezaten bultzatzea.

Proposatzen ditugun neurriak eta anbizio handiagoko helburuak:

- **Lankidetzaren balioak** eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren tresnak Euskal Hirigune Elkargoaren garapen ekonomikoaren eske-man bultzatzea. Balio horiek dituzten herritarren ekimen kolektiboak bultzatu eta sustengatzea, Merkataritza eta Industria Ganbara (CCI) eta Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua inplikatur.
- **Laguntzak eta eskaera publikoa** irizpide sozial eta bidezko arau batzuen errespetuaren arabera baldintzatzea: gizon/emazte arteko soldaten berdintasuna, estatutuan finkatua den soldata eskala, gobernantza.
- Enpresen trantsizio ekologiko eta energetikoan langileak laguntzeko baliabideak egokitzea, berdintasunean, sexu edota lan kategoriaren bereizketarik gabe.

EHBaik lehentasuna eman nahi die lurraldearen eta bertako biztanle guztien interesen alde jarduten duten aktibitate ekonomikoei

ESTATISTIKA ZERBITZU PUBLIKOA

Ipar Euskal Herri mailako estatistika zerbitzu publiko bat sortzea. Egun, funtsezkoak diren datu anitz ez dira gure eskalakoak. Datu horiek lurralde eragile guzien eskura egon beharko dute, lurralde trantsizio prozesua eraginkortasunez bideratzeko ezinbesteko alde aurreko baldintza baita.

Datuak sortzeko lan hori Hego Euskal Herrian duen baliokideekin artikulatzea, Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako Behategiaren izpiritua segituz.

FINANTZAMENDU TRESNAK

Finantzamendu tresnak sortu, gobernantza kolegiatu eta garden batekin, Ipar Euskal Herriko esperientzia historikoan oinarrituz. Tokiko garapenerako finantza tresna solidarioak kontuan hartu (HERRIKOA, CLEFE, CLEJ, EUSKO), eta erakunde finantzario publiko zein pribatuen esperientzian oinarritu behar da. Tresna hauek **Ipar Euskal Herriko lurralde trantsizioa garatzen lagundu behar dute eta lurraldeko banku baten rola bete:** energia berriztagarrien garapena, tokiko garraio publikoei soluzioak... Eusko Monetaren berme funtsak abiarazteko balio lezake.

Heldu diren transformazioak aurreikusi eta lagundu

- Metamorfosi ekologikoaren epe ertain eta motzeko onurak izugarriak dira ekintzarik gabeko politikarekin konparaturik, batez ere egokitzeko baliabiderik izanen ez duten herritar kaltetuenentzat. Antzipaziorik ez bada, aktibitate ekonomiko batzuk desbideratuko dira ekonomiaren birbideratzearen ondorioz. Horregatik, **eragile ekonomikoek, klima eta biodibertsitate erronkei erantzuteko borroken erdian izan behar dute**. Zenbat eta gehiago integratu lurralde ekosisteman (haien buruzagi eta langileen bidez, kapitalen jatorriaren bidez, euskararen presentziarekin edota ekoizpenaren izaeraren bidez), are eta **erresilienteagoak izanen dira aldaketa horien aitzinean**.
- Teknologia berrien eta bereziki adimen artifizialaren agerpena, gure ekosistema ekonomikoari buruzko gogoeta kolektiboan integratua izan behar da. **Arrisku handien iturri izan daitezke** (lanpostuen desagertzea, uniformizazio kulturala...). **Behar bezala erabiliz gero, helburu batzuk lortzeko ere balio dezakete**: ondasun erabilgarrien ekoizpena, elikagai osasungarriak edota energia berriztagarriak.

- Erronka horiei erantzuteko, **bilakaera instituzionala behar da, Ipar Euskal Herria ambiziozko politika sozio-ekonomiko bat plantan ezartzeko beharrezko baliabidez hornitzeko**, entitate politiko, sozial eta ekonomiko propioa den heinean. Honek jendarte zibilari, eragile sozioekonomikoei eta eragile politikoei etorkizuna prestatzeko behar diren tresnak elkarrekin eraikitzea permitituko die.

- **Fiskalitate ekologikoaren eta birbanaketa neurrien kudeaketa** ere proposatzen dugu. Izan ere, lurraldearen errealitatearen ezagutzari esker, laguntza, konpentsazio eta birbanaketa politika eraginkorrak gauzatzeko aukera guziak ukanen ditugu.

- Helburu horiek betetzeko eta lurraldeko ekonomia zehaztasunez eta manera eraginkor batean kudeatzeko Ipar Euskal Herrian baliabideak behar ditugu. **«Metamorfosi ekologikoko enpleguen» potentzialaren azterketa sakon bat egin behar da**, bermoldaketa profesionalak ahal bezain ongi aurreikusteko. Ikerketa horren eragina are garrantzitsuagoa izanen da, bere metodologiak lurraldeko eragile guziak, eta lehen buruan eragile ekonomikoak, bere gidaritzarekin eta gauzatzearekin lotuko baititu.

- EHBaierentzat baitezpadakoa da **langileak prestatzea** aldaketa horiei buru egiteko, kalifikazio gaitasuna galtzeko arriskuak saihesteko. Eta baita **enplegatzaileei beren beharrak ze-**

Aldaketa horiei aurre egiteko langileak prestatzea eta enplegatzailerien beharrak zehazten laguntzea baitezpadakoa da

hazten laguntzea ere (materialak eta immaterialak), enplegu galeren saihesteko. Transmisio bidean diren enpresa oso ttipiak (TPE) eta sozietateak (ETEak) ere lagundu behar dira, Ipar Euskal Herriatik gidaturiko segimendu bat izan dadin. Langileen susperraldia, ahal bada kooperatiba moldean sustatua izan behar da.

• **Konpetentziak behar ditugu formakuntza sistema bat sortzeko**, tokiko behar sozioekonomikoei egokitua, eta tokiko enpresa sarearekin harreman hertsian diren ikerketa zentroein atxikia.

- Tokiko behar guzien integratzea, besteak beste lurralde trantsizioaren arrakastarako beharrezkoak direnak formakuntza maila guzietan (hastapenekoak, unibertsitatekoak, iraunkorra).

- Gure identitatearen parte diren ekin-tzailtza kooperatiboa eta lankidetzaren balioak sustatzea gure lurraldeko heziketa ziklo guzietan.

- Aktibo guzien (soldatapekoak eta soldatapekoak ez direnak) lanbide formakuntzarako sarbidearen segurtatzea, lurralde trantsizioaren eremuan, lanpostuen bilakaeretara etengabe egokitzeko gaitasunak eskuratzeko.

Formakuntzari eta aterabideei dagokienez, **Euskal Herri osoko eskala** garrantzitsua da. Bereziki, Hego Euskal Herriko kultura industrialarekiko osagarritasuna baliatu behar da. Esparru horretan euskarak eragile papera bete behar du.

LABORANTZA

Laborantza herrikoia da gure lurraldeko laborantza eredu tradizionala: mendi etxaldeak, ttipiak, naturari eta sasoiari lotuak, hazkuntza nagusi dena... Euskal laborariek aski fite zalantzak agertu zituzten «laborantzaren modernizazioaz». Beren berezitasuna defendatzera eta indartzera lotu dira: laborantza herrikoia.

Laborantza ez da elikagaiak sortzeko ekintza hutsa. Beste rol anitz ditu: deslokalizagarriak ez diren enpleguak sortzea, populazio bat landa eremuan atxikitzea, espazioaren mantentzea eta baloratzea, beste sektore batzuk garatzea (turismoa, zerbitzuak, laborantza elikadura sailak...), euskararen transmisioa, ekintza kulturala... EHBairen ustez, laborantza eredu horrek **permitituko du elikadura burujabetzarantz aitzinatzea, klimari eta biodibertsitateari lotuak diren erronkei erantzutearekin batera.**



Laborantza herrikoia, gure jendartearen zutabea

Euskal Herrian, laborantzaren dinamismo interesgarria izan arren, aktibo eta etxaldeak galerak geldiezinak dirudi. Lurraldea mobilizatu behar dugu gure jendartearen zutabe den ereduaren alde.



© Guillaume Fauveau

BEREN LANAZ BIZI DIREN LABORARIAK

Egun, zuzeneko salmenta egiten ez duen laborariak ez du preziorik maneiatzen. Prekarietate honekin bukatzeko, **prezio ordaintzaileak behar dira**. Laborariak beren lanetik bizi behar dira. Beraz, lege bat defendatzen du EH Baik, kostu prezioen azpiko edozein prezio debekatuko duena.

Etxaldeko eraldaketak balio erantsia atxikitzea ahalbidetzen du. Bertan lan egiten dutenen diru-sartzeak ukaitea permititzen du. Garrantzitsua da **lurraldean eraldatzeko tresnak atxikitzea eta sortzea** (gasnategi ttipiak, haragia eraldatzeko atelierrak, hiltegi publikoak, ekoizleen elkartzea...).

Emazte laborarien baldintzak: Etxaldeetan beti protagonismoa izan badute ere, legalki, emazteak baztertuak eta ikusezinak izan dira luzaz. Estatuturik gabe, ezkon-lagunaren kolaboratzaile gisa onartuak izan ziren 1980an, eta 2010az geroztik estatutua lortu dute bikotekideen artean GAEC sortuz gero. Egun, laborantzan diren emazteen instalazioak emendatzen ari dira Ipar Euskal Herrian: 2010ean %25

izatek 2022an %38 izatera pasatu dira. Oraindik bada bidea egiteko arlo hauetan: haien estatusa, eskubide sozialak (erretretak...), instantzietan duten lekua eta haiekiko ikuspegia (emazteendako egokiak ez diren tresnak, egoera matxistak...).

Zirkuitu laburrak sustengatzen ditugu: Supermerkatuaren ordeko salmenta manerak emendatzen ari dira ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko lotura sendotuz eta garraio, paketatze eta kutsadura murriztuz. Kalitatezko produktuak arrazoizko prezioan lortzeko bidea ere bada. Eusko Moneta erabiltzeak molde horiek indartuko lituzke tokiko dinamikaren mesedetan.

Elikadurarako ekoizpenaren osagarriak diren aktibitateak garatu daitezke etxaldeetan, autonomia eta egoera zailei buru egiteko gaitasuna indartzeko. Adibidez, **nekazalturismoa** diru-sartze berri bat ahalbidetzen duen jarduera bat da. **Etxalde pedagogikoek** interesa sortzen dute laborantza mundutik urrun den publikoaren artean. **Energia berriztagarriak** sortzea ere beste osagarri bat izaten ahal da, baina sekula laborantzako ekoizpenak suntsitu gabe.

TRANSMISIOA

Transmisioa: hiru etxalde ttipik handi batek baino gehiago balio dute.

- **Etxaldeen transmisioa %25ean apaldu da.** Etxaldeak atxikitzea lortzen ez badugu, laborantza eredu tradizionala galtzen ariko gara. Naturari loturik lan egiteko gaitasuna eta kalitatezko produktuak proposatzeko gaitasuna ahulduko lirateke, baina baita gure nortasunaren parte bat eta gure herrietako elkartasun sistemen eta bizi kulturalaren funtsezko elementu bat ere.
- **Bokazio berriak bultzatu behar dira,** publiko berriak errezibitu, lagundu eta sustengatuz instalazio ibilbidean. Gisa berean, lan bat egin behar da beren ibilbidearen hondarrera heltzen diren laborariekin, etxaldeen uztea onar dezaten.
- **Etxalde handien joera saihestu** behar da, arriskua baita hauek transmitiezinak bilakatzea, handiegia direlako eta beraz, garestiegia. Fenomeno kezkarri bat agertu da: enpresa handiek edo inbertsio funtsek laborantzako lurra erostea.

Etxaldeen transmisioa %25ean apaldu da 2010 eta 2020 urteen artean, eta ondoko hamar urteetan, bi etxaldetik batek ez du segidarik izanen

EUSKAL LABORANTZA ARRISKUAN JARTZEN DUTEN POLITIKAK

Egun, **Laborantza Politika Komunaren** (LPK; PAC frantsesez) laguntzak hektarea eta kabal kopuruaren baldintzapean daude, eta horrek etxaldeen handitzea eta kontzentratzea sustatzen du, baina baita praktika industrialak eta ongarrien zein produktu fitosanitarioen erabilerara intentsiboa ere. **EHBaik LPKren erreforma defendatzen du, helburu hauekin:**

- Langile aktiboak diruz lagundu hektareen orde.
- Hektareen arabera laguntzak apaltzeko baremo bat ezarri.
- Ingurumen zerbitzuen ordaintzea, trantsizio agroekologikoa sustatzeko.
- Laguntza berezi bat sortzea LPKk sustengatzen ez dituen etxalde ttipientzat.

Euskal Herrian, **Zeelanda Berriarekiko merkataritza libreko hitzarmenek bertako eta Zeelanda Berriko hazleak lehian ezartzen dituzte,** azken hauek onuradun direlarik ekoizpen motagatik. Hemen, tokiko beharrak bete litzakeen Pirinioetako esne bildotsa baztertuta da. Tokiko kooperatibek lan handia egiten dute, baina, horrez gain, legeak gutxieneko prezio batzuk ezarri behar ditu frantses Estatuan sartzeko, kostu-prezioekin lotuta, lehia desleiala neutralizatzeko eta ingurumenaren eta jendartearen aldetik suntsitzailea den egoera hori geldiarazteko.

Osasun neurrietan laborantza herrikoia berezitasuna kontuan hartu

Laborariak gero eta osasun araudi zorrotzagoak bete behar dituzte, eta araudi horiek laborantza-industria hartzen dute esparru inplizituztat. Zoonosiak gehiago hedatzen dira dentsitate handiko etxaldeen eta eraikin hetsietan. Etxalde ttipien-

tzat bidegabekeria bat da, proportzionalki neurri garestiagoak eta funtzionamendurako gaizki egokituak dituztelako. Beraz, arriskuak murrizteko hurbilketa bat behar dugu, etxalde ttipiei kalte eginen ez diena: izan ere, neurri horiek etxalde ttipiak desagerrarazten laguntzen badute eta, ondorioz, erai-kin hetsietan dentsitate handiko etxaldeen ehunekoa emendatzen bada, horrek arazoa larriagotu baizik ez du eginen. Ondorioz, ezinbestekoa da kontuan hartzea tokiko zirkuitu laburreko antolaketak, tokiko arraza erresistenteen erabilerak eta aire zabalak, ibilbide estentsiboek eta talde ttipiek zoonosien hedatze arriskuak murrizten laguntzen baitute. Ezaugarri horiek optimizazioa baizik ez dute eskatzen, eta ez ukatzea. Haragiaren eta nitratoen eflux kontsumoaren murrizketa orokorra baitezpadakoa den testuinguru batean, polilaborantzako hazkuntza estentsiboa egiten duten etxaldeentzat arriskuak murrizteko politikak plantan ezarri beharko lirateke, haien biziraupena eta kabalen osasuna bermatzeko.

Laborantza motaren eragin sozial eta ekologikoak kontuan ez hartzeak, paperik gabekoen ustiapenean oinarritzen den espainiar Estatuko hego-ekialdeko laborantza ereduari nagusitzen segitzeko parada ematen dio. **Ingurumen eta gizarte klausulak ezartzea defendatzen dugu.**

EHBaik Laborantza
Politika Komunaren
erreforma defendatzen du

Elikadura burujabetzaranzko urratsak

Munduko Merkataritza Erakundeak (MME) ezarritako lege liberalen eta indarrean diren merkataritza libreko itunen aitzinean, mundu osoko laborariak lanjerrean dira. Kalitate eskaseko ekoizpena eta ingurumena ez errespetatzea sustatzen du. Gure helburua elikadura burujabetza da, Via Campesina nazioarteko laborari mugimenduak honela definitzen duen bezala: herriek elikadura osasungarria eta kulturalki egokia izateko duten eskubidea, ingurumenarentzat osasungarriak eta iraunkorrak diren metodoen bidez, eta beren elikadura eta laborantza sistemak definitzeko eskubidea.

- **Lurrak bereganatzearen aurka borrokatu, baliabide guziekin.** Euskal Herrian, laborantza lurrarentzat lehia handia da eta lanbidearen esparrua gainditzen du: bizitegi, industria, artisautza, saltegi, antolaketa ezberdinak (aparkalekuak, bideak...)...

- **Tresna eta plan publiko ezberdinak erabili** laborantza lurren higitze hori geldiarazteko, bereziki SCOT (Lurraldeko Koherentzia Eschema) eta Tokiko Hirigintza Planen ezartzearekin, 2050ean «zero artifizializazio garbiaren» xedearen barnean.

- **Lurzaindiaren ekintza bideak indartu.** Kolektibitateen partaidetza handitu Lurzaindiaren kapitalean, laborantza lurren babesteko bere ekintza bideak indartzeko eta lurraldeko laborari etxaldeen ezartzea eta atxikitzea errazteko.

- Lurrari buruzko araudiak aldatzeak, **SAFE-Ren aitzin erosteko ahalmena indartuko luke**, laborantza erabilpenaren galera eta lurren espekulazioa eragotziz.

- **Elikadura ekoizpena begetalizatu.** Ipar Euskal Herriko laborantzaren ezaugarri nagusia animalia jatorriko proteina ekoiztea da: esnea eta haragia (gehiena lurraldetik kanpo esportatuak). Landare ekoizpenak existitzen dira, baina funtsean kabalaren elikadurarako: zerealak, artoa... Orokorki, giza kontsumorako landare ekoizpena oso guti gartua da.

- Lurralde honen elikadura burujabetzarantz jotzeko, beharrezkoa da, oraindik existitzen den **lur belarkara babestea eta bertan giza bokazioa duten ekoizpenak garatzea.** Laborantza asko dibertsifikatu eta «begetalizatu» beharko da.

- Paraleloki, **biztanleen kontsumo moldeek eboluzionatu** beharko dute: animalia proteina gutiago eta zereal, lekale zein barazki gehiago.

- Ekoizpen mailan (eskola, formakuntzak...) eta kontsumoan (tokiko hornikuntza, banaketa, jantoki kolektiboa...), xede hori lortzeko, orientazio eta berrantolaketa bat pentsatu behar da. Euskal Herrian, bereziki, **laborantzako goimailako hezkuntza-eskaintza** behar da trantsizio agroekologikoaren inguruan, lurraldeko laborantzaren berezitasunetara egokitua.

- **Ekoizpenen osagarritasuna gehiago ustiatu Euskal Herriko zazpi probintzien artean.**

- **Elikaduraren gizarte segurantza garatu.** Pertsona orok du bere elikatze moldea hautatzeko eta kalitatezko janari iraunkorra eskuratzeko eskubidea. Gainekoizten duen eta behartsuenak elikadura urritasunera zein eskasera kondentzen dituen munduko laborantzako elikagaien sistematik ateratzeko, elikaduraren gizarte segurantza ezartzea proposatzen du EHBAIk.

LABORANTZA ETA ELIKADURA BULEGOA SORTU

Euskal Herrian, eragile anitzek parte hartzen dute laborantza herrikoia ren garapenean. Lurraldean antenak dituen Departamenduko laborantza ganbarak aspalditik ez du ekintza-lehentasunik. Egungo Euskal Herriko egoera aberats eta heteroklitoa hamarkada luzeetako borroka eta lanaren emaitza da. Bilakaera horrek haratago joatea galdegiten du. 2017an Euskal Elkar-goa sortu zenetik eta laborantza eskumena hartu zenetik, logikoa da herri honek **instantzia publiko ofizial bat ukaitea, non eragile guziak bilduko diren lurralde honi dagokion laborantza eta elikadura politika ezartzeko**. Eragile guziek anbizio handiz jokatu behar dugu erronka honetan, eta frantses Estatuaren aitzinean eragin, instantzia ofizial, original eta berritzaile bat sortzeko. Aitzinera egiteko baliagarria izanen da gai erabakigarrietan, hala nola: lurraren kudeaketa, elikadura burujabetza, laborantza enpleguaren atxikitzea, barnekaldearen garapena edota berotze globalaren aurkako borroka.

Elikadura burujabetzarantz jotzeko, beharrezkoa da, oraindik existitzen den lur belarkara babestea eta bertan giza bokazioa duten ekoizpenak garatzea

Klima eta biodibertsitatearen erronkari buru eginen dion laborantza

Laborantzak berotegi gasen laurdena eragiten du. Laborantzarako laguntzak agroekologiara bideratu behar dira, bere praktikak bizidunak babestu, isuriak apaldu eta karbonoaren harrapaketa indartu dezan.

Ura: erabilpen gatazkak ugarituko dira baliabidearen eskasiaren ondorioz. Laborantzan, uraren kudeaketa ekoizpenak dibertsifikatu eta kontsumoak birtokiratu behar dira, pertsonen kontsumoari lehenetsia emanaz.

- **Uraren kalitatea zaintzeko**, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak prestakuntza teknikoak proposatzen ditu dibertsifikazioari, kulturartekotasunari, kultura teknika sinplifikatuei, edo belar kentze mekanikoari buruz. Laborariei hornitzen laguntzen dien Euskal Hirigune Elkargoaren desmarxa sustengatzen segitu behar da.
- **Uraren ekonomia erabiltzaile guzien arduraren izan behar da.** Helburu horretan, baliagarria litzateke ur gutiago kontsumitzen duten neguko ekoizpenak ezartzea: garia, oloa, tritikala, zekalea edota sarrasina.
- **Ureztatzea manera iraunkor eta arrazoikoan gogoetatu behar da.** Erabiliko bada, pribilegiatua izan behar du giza bokazioa duten laboreak ureztatzeko. Labore intentsiboak, laborantza lehiakor eta esportatzailea ureztatuz baliabide hori xahutzen da. Debekatua izan beharko litzateke. Hori dela eta, megamaularen proiekturik ez da eraiki behar.

Kimika funtsezko osagaia da laborantza industria-larentzat. Haren erabilpenak ondorio katastrofi-koak ditu (kutsadura, osasuna, biodibertsitatea...), baina baita jakitatean ere, kimikarik gabe lan egiten ez jakiteraino, erabiltzearen erabat menpekota izateraino eta horretarako edozein alternatiba bazterteraino.

- **Egiturazko aldaketak behar dira kimikarekin bukatzen hasteko.** Beste laborantza praktiken plantan ezartzeko finantza pizgarri sendoekin hasiz. Laguntzak ezinbestekoak izanen dira ere kimika ordezkatzeko duen eskulana kontratatzeko, laborari berriak ezartzeko, etxalde handiak desegin eta dibertsifikatzeko... Alternatibak existitzen dira. Milaka laborari aritzen dira egunero pestizidarik gabe.
- **Laborantza berriz bideratzeko perspektiban,** egun kaltetuak diren eragile guziaz irabazle lirateke: laborariak lan kalitate eta segurtasunagatik, kontsumitzaileak kontsumitzen diren produktuen kalitateagatik eta ingurumena pozoia ez erabiltzeagatik.

Laborantza biologikoa hedatua da Ipar Euskal Herrian, 450 etxalde baino gehiagorekin. Ekoizpen molde hori bertutetsuena bada ere, egitateetan gutxietsi egiten da: Bioari eskainitako aurrerontua apala da eta laguntzak urte bat baino gehiagoko gibelapenarekin heldu dira beti. Aldiz, laborantza biologikoa babestea eta garatzea laborantza industrialak sortzen dituen kostuak baino askoz merkeagoa da: uraren, airearen deskontaminazioa, giza osasunaren kudeaketa...

EHBaik belarra bazkaleku duen hazkuntza ereduak sustengatzen du. Gizakientzako janaria ekoiztea ahalbidetzen du. Belarguneak belarjaleek atxikitzen badituzte, biodibertsitatea babesten da, karbonoa gorde eta animaliek ongarri naturala ematen dute.

Alternatibak existitzen dira. Milaka laborari aritzen dira egunero pestizidarik gabe

ARRANTZA

EHBaik laborantzaren logika berdinarekin sustengatzen du egun Ipar Euskal Herrian krisian den arrantza sektorea.

Mobilizatu tokiko arrantza salbatzeko. Arrantzak gure identitate kulturallean leku garrantzitsua hartzen jarraitzen badu, Lapurdiko arrantza sektorea krisian da gaur egun; tokiko erakundeek laguntzarik gabe, tokiko arrantza ttipia azken hamarkadetako industrializazio logikaren biktima izan da. Laborantzak ez bezala, bertako arrantza ez da arrakastaz antolatatu izan gainbehera saihesteko.

- **Lurralde mailan erabakitako eta tokiko erronka ekonomikoetan txertatua den arrantza politika bat** proposatzen dugu, ikusirik Lapurdiko arrantza sektorearen bilakaera eta 1980-90 urteetatik goiti Euskal Autonomia Erkidegoan tokiko arrantza tradizionalak izan duen sustengu maila alderatzen bada. Horri esker, lanpostu gehiago atxiki dira, tokiko kontserba lan-tegiekin lotuak; Ipar Euskal Herrian, aldiz, eduki-ahalmen handiko itsasontziak sustatu dira, sistema ez selektiboen alde eginez eta, beraz, bioaniztasunean eragin handia duten eta arrantzale gutiago behar duten arrantza sistemak dituzten eremu urrunetara joanda.

EHBaik arrantza tradizionala sustengatzen du, zeregin garrantzitsua duelako gure elikadura burujabetzan eta jarduera horren inguruan tokiko ehun ekonomiko baten sorkuntzan.

Horretarako, arrantzaleen eta kontsumitzaileen arteko lotura sortu behar da. Tokiko instituzioek beren ardura hartu behar dute, elikadura proiektuen bidez, laborantzarentzat bezala, deialdietan arrantza tradizionalaren alderdi positibo guztiak kontuan hartuz (eragin ekologikoa, sorturiko lanpostuak, sare soziokulturalen sartzea...).



- Arrantzak segitzea nahi badugu, **lanbidea gazteentzat** erakargarriagoa izan behar da eta transmisioa bermatu belaunaldi berri horiek formatzeko. Arrantza Ipar Euskal Herriko kultur identitatea eta ondarea sendotzen duen jarduera ekonomikoa da, eta transmisio horrek kultura eta hizkuntza ere barne bildu behar ditu.

Tokikoa den arrantza ekologikoagoa. EHbaik arrantza politika eredu bat defendatzen du, balio anitzeko flota batean oinarritua, alde batetik, presioa espezie sorta zabalago baten gainean banatzeko, eta, bestetik, ekonomikoki arrantzan egon daitezkeen murrizketa neurrien menpe ez izateko. Halaber, eragin ekologikoa mugatzen duten eta enplegua maximizatzen duten arrantza moldeak lehenetsi behar dira (tresna pasiboak eta bolintxa, adibidez, selektiboagoak dira eta erregai gutiago kontsumitzen dute arrantzatutako kilo bakoitzeko). **Babes neurriak ezinbestekoak dira, eta guztiz bateragarriak tokiko arrantzaren laguntzarekin. Helburua da elikadurak eta habitat sentikorrek babestea,** karbono bahiketa zaintzea itsasertzean, eta, gisa berean, apustu horiekin bateragarriak diren arrantza jarduerak atxikitzea.

Lanbidea gazteentzat erakargarriagoa izan behar da eta transmisioa bermatu belaunaldi berri horiek formatzeko

METAMORFOSI EKOLOGIKOA

Mundua jadaneko inpaktu handia jasaten ari da berotze globalaren eta biodibertsitatearen gainbeheraren ondorioengatik. Maluruski, Ipar Euskal Herrian aldaketa horien eraginpean gaude: berotzea munduko batez bestekoa baino handiagoa da, gure kostaldearen hedadurak itsas mailaren igoeraren eraginpean jartzen gaitu bereziki, gure laborantzak eta arrantzak kalte handiak jasango dituzte seguruenik, uholdeak emendatzen ari dira, lurrazpiko urik ez izateak bereziki kaltebera egiten gaitu idorteen aitzinean... Zuzeneko inpaktuetatik haratago, ondorio politikoak ezin txarragoak izan litezke; adibidez, munduan bizitzea ezinezko bilakatu diren eremuetatik heldu diren migrazio-oldeak instrumentalizaturik, eskuin muturreko alderdiak indartu daitezke diskurtso xenofoboa elikatuz.

Politika neoliberalak indibidualismoa bultzatu dute etengabe, eta, uniformizazio kulturalen oinarrituz, neurritz kanpoko kontsumoa nagusi da arrakastaren adierazle nagusi gisa. Dinamika hori bi arrazoiengatik da suntsitzailea: lehenik eta behin, ingurumenaren aldetik ez baita jasangarria, baina baita elkartasun kolektiboak hausten dituelako ere, horiek gabe ezinezkoa izanen baita buru egin beharko diegun aldaketa izugarrietara egokitzea.

Aldiz, uste dugu abertzaleon logika arrunt egoia dela erronka horiei buru egiteko. Metamorfosi ekologikoa proiektu kolektibo zabal batean integratzen da, non, osagai ekonomiko, sozial, linguistiko eta kulturelek elkarrekin harremanetan ezarri eta aitzina egiten duten. Beste nazio ttipiekin gertatzen den bezala, lehen herrietatik hasi eta estatu handietako gutiengoe-taraino, gure hizkuntzaren eta kulturaren bizi-raupena gure lurraldeari loturik dago. Klimaren eta biodibertsitatearen erronkei aurre egiteko lurralde hau babestea baitezpadakoa da, etorkizuna marrazteko eta lanjerrean diren beste herriekiko elkartasuna adierazteko.



Karbono-neutraltasunaren helburua betetzea, biodibertsitatea babestea

Europako klima legeak 2030erako berotegi efektuko gasen isurketa garbien %55eko murrizketa eta 2050erako karbono neutraltasuna ezartzen ditu helburu gisa. Horien betetzeak kontsumo maila apaltzea erran nahi du, eta hondar-kontsumoen deskarbonatzea. Ekintza politikoa gidatu behar duen beste faktore bat egoeraren premia da: gaur bertan atmosferara karbonoa isurtzeari utzi eta biodibertsitatearen gainbehera eten behar dugu, ekosistemaren onurak izugarriak direlako (karbono putzuak, osasuna edota kutsaduraren aurkako borroka). EHBaik helburu horiekin bat egiten duten erabaki politikoak hartuko ditu.

EHBaik Klima Planaren helburuen goranzko berbalorizazioa proposatzen du

Behatoki bat sortu, gardentasunez eta kolektiboki aritzeko

Euskal Herriko Klima Planak behar baino helburu apalagoak ezarri zituen, 2050ean karbono-neutraltasunera ez bideraturik; helburuak, gainera, ez dira gorantz berbalorizatu, nahiz eta, 1990 urtearekin alderaturik, Europar Batasuneko Kontseiluak bere ibilbide-orri berria onartu.

EHBaik Klima Planaren helburuen goranzko berbalorizazioa proposatzen du. Ezarritako helburuen gaitetik, biziki zaila da jakitea non dagoen Ipar Euskal Herria karbono neutraltasuneranzko trantsizioan. **EHBaik Euskal Herrian metamorfosi ekologikoaren segimendua egiteko behatoki bat sortzea proposatzen du,** non trantsizioan parte hartzen duten eragile ekonomikoek, ordezkari politikoek eta jendarte zibileko sektoreetako ordezkariak parte hartuko luketen. Erakunde honek ekintza zehatzak orientatu beharko ditu, erraterako, diruztatze publikoak baldintzatzeko.



© Guillaume Fauveau

Artifizializazioa gelditu

Klima Planaren «Estrategia» atalak azpimarratzen du zein garrantzitsua den «lurraldeak lurzoruetan eta naturaguneetan karbonoaren biltegitratzea garatzeko duen gaitasuna (hezeguneak eta oihan eremuak)»; defendatzen du lur urritasuna «lehentasunetako bat» izatea SCOTen, «elikatzeko lurrak, hezeguneak eta baso eremuak sakralizatzeko, karbonoaren bahitze eta uraren ziklo handiaren erregulazioaren aldeko inguruneak baitira».

Engaiamendu horien segimendua EHBaik proposatzen duen metamorfosi ekologikoaren behatokiaren bide-orriaren parte izan behar da.

EHBaik haratago joan behar dela uste du, metamorfosiaren finantzaketarako erakunde bat sortuz

EHBaik justifikaziorik ez duten proiektu handiak errefusatzen ditu, bereziki Abiadura Handiko Trena

Trantsizioa antolatu eta diruztatu

Larrialdia dela eta, ahalik eta hobekien antolatu behar da Euskal Herrian aldaketa eraginkorra izan dadin berotze globalaren aitzinean. Antolaketa horrek lan edo xantierren lehenestea suposatzen du, lurraldeko eskalan trantsizioa optimizatzeko. Tresna instituzionalak sortu behar ditugu pario horiei erantzuteko. 2023an, Euskal Hirigune Elkargoan trantsizio energetikorako eta plangintza ekologikorako idazkaritza bat sortzea bide onetik doa, baina EHBaik haratago joatea proposatzen du, **trantsizioaren finantzaketarako erakunde bat sortuz**, besteak beste, funtzio hauekin:

- **Lurralde banku baten** eraikitze bidean aitzinatzea, proiektu garestien edota epe luzerako errentagarritasuna duten proiektuen finantzaketan laguntzeko, hirugarren inbertsio formulen bidez (ikus "Ekonomia" atala).
- **Lanbide heziketa** beharrak antolatu trantsizioa gauzatzeko (ikus "Ekonomia" atala).
- Aturri- Euskal Herriko Mugikortasun Sindikatua-ekin mugikortasun **politika jasangarri bat plantan ezartzea** eta eguneroko garraioetara bideratua (garraio publikoa, mugikortasun eztea, autopartekatzea...) eta ez Abiadura Handiko Trenaren gisako proiektuetara. Aparkalekuen gaineko eskumena emateak parada emanen lioke aldaketa modal koherente baten estrategia eramateko eta aparkalekuen diru-sartzeei esker, bere mugikortasun proiektuen zati bat finantzatzeko. Sartze horiek, automatikoki mugikortasun proiektuetan eragina

izanen lukete, egun gertatzen ez den bezala. Jendarte zibilarekin lan egin beharko da aldaketak hobeki laguntzeko.

- **Alferrikako proiektu handi eta suntsitzaileen errefusa.** EHBaik ekosistemarentzat ondorio kaltekorrak eta justifikaziorik gabeko kostu ekonomiko eta soziala duten proiektu handiak errefusatzeko, bereziki Abiadura Handiko Trena (AHT). Gure lurraldea krisi ekologiko, ekonomiko eta sozialei buru egiteko prestaketan inbestitu behar da. EH-Bai egungo burdinbideak modernizatzearan alde

da, bai eta eguneroko mugikortasuna hobetzeko inbestimenduaren alde ere, lurraldeko hautetsien gehiengoak galdegiten duen bezala.

- Ipar Euskal Herria zeharkatzen duen autobidean merkantzia handiek sortzen duten kutsadura dela eta, EHBaik **ekotasa bat ezartzeko legea aldatzea proposatzen du**, bertatik lortuko diren diru-sartzeak lurralde mailako mugikortasun ez-tien proiektuetan (merkantzia eta bidaiariak) erabiliak izan daitezten. Alsazian jada indarrean den neurria da.

Gatazkak aurreikusi eta kudeatu

Metamorfosi ekologikoaren epe ertain eta laburreko onurak handiak dira ekintzarik gabeko politikari konparaturik, batez ere egokitzeke baliabiderik izanen ez duten populazio behartsuenentzat. Trantsizioak hainbat aktibitate ekonomikotan izanen duen eragina saihestezina da.

Metamorfosi ekologikoak eragiten dien sektoreak lagundu

Bideratze horren ondorioak aitzinatu eta hunkituak diren sektoreetako langileen laguntza plantan ezarri behar da. Horretarako, EHBaik proposatzen du:

Indarrean diren zerga ekologikoen kudeatzeko gaitasuna eta, behar izanez gero, horien sortzeko ahalmena, metamorfosi ekologiko justuaren aldeko konpentsazio eta birbanaketa neurriak ahalbidetzeko.

- **Gatazkak aurreikusi.** Berotze globalaren eta bio-dibertsitatearen gainbeheraren aurka borrokatzea helburu adostua da, baina praktikan jartzea arrunt delikatua izan daiteke, desafioen aniztasuna dela eta. Horrela, hainbat kontraesan edo gatazka sortzen ari dira jadaneko, eta pentsatzekoa da areagotuko direla, bereziki esparru hauetan:

- Lurren artifizializazioaren inguruan. Mugerreko hezeguneen adibideak agerian utzi du zaila dela hezeguneak zaintzea, trenbideko zamaren bidezko garraioaren deskarbonatzea eta jarduera ekonomikoa uztartzea. Zero Artifizializazio Garbiaren Legearen testuinguruan, beste kudeaketa konplexu batzuk etxebizitza berrien eraikuntzari edo energia berriztagarrien ezarpenari lotuak dira.

- Uraren inguruan. Ur-baliabidearen eskasiak erabilerari loturiko gatazkak sortuko ditu, Mediterraneoko zenbait eremutan jada, laborantza, turismoa, aisialdia, jarduera ekonomikoa eta biztanleen kontsumoaren artean ikusten diren gisa-koak.

- Gai gatazkatsuak aitzinatu eta eztabaidatu behar dira aitzinetik, eztabaida lasai bat egitea posible denean. Gai horiei buruz eztabaidatzeko, **EHBaik dei egiten du lurraren eta uraren erabileraz bilkurak egin daitezten** eta horietan hautesiek, zientzialariek, elkarteek eta herritarrek parte hartzeko parada izan dezaten.

Metamorfosi ekologikoa, Euskal Herriarentzat aukera bat

Metamorfosi ekologikoa menpekotasun ainitzetatik (elikadura, energia...) askatzeko aukera da, eta, beraz, burujabetza eremu zehatzak eraikitze bidea. Justuki, egungo erronka ekologikoei erantzuteko proposatzen ditugun aterabide batzuek instituzio mailako aitzinamenduak galdegiten dituzte.

Burujabetza espazio berriak sortu

- **Energia.** Karbono-neutraltasunaren helburua gure kontsumoak murriztetik eta deskarbonizatiotik pasatzen da. EHBaik energia berriztagarrien garapena sustengatu eta hauen eredu ekonomikoari eta gobernantzari buruz ere gogoetatu behar dela adierazten du. Trantsizio energetikoa egun, besteak beste, Golkoko herrialdeetako multinazionalen eta inportazioaren mendekotasun egoeratik ateratzeko aukera da. Tokiko ekoizleek eta energia berriztagarria sortzen duten herritarrek gure kontsumo elektrikoaren zati handi bat estal dezakete hemendik urte batzuetara: horrek dirua eta tokiko enpleguak birtokiratzen ditu, aitzinetik aipaturiko trantsizioaren finantzazio erakundearen bidez trantsizioa diruztatzeko zirkulu bertutetsu batean erabil daitezkeenak. **EHBaik, beraz, autokontsumo ereduak defendatzen ditu, eskala indibidual eta kolektiboetan, baina betiere lurralde osoko trantsizio energetikorako duten garrantziaren arabera pentsatuak, eta proiektu horri egokituriko Energia Komunitateen inguruan artikulatuak.**

Hego Euskal Herriko herriei loturak sendotu nahi ditugu, esperientziak partekatzeko eta Euskal Herri mailako ekimen berriak elkarrekin eraikitzeko

- **Elikadura burujabetza.** (ikus "Laborantza" atala)

- **Hego Euskal Herriko herriei lotura sendotzea.** Hainbat Herriko Etxek (Hernanik edo Usurbilek, adibidez) burujabetzak eraikitze programa oso interesgarriak dituzte; EHBaik haiekin eta Udalbiltzarekin loturak garatu nahi ditu, gure esperientziak partekatzeko eta Euskal Herri mailako ekimen berriak elkarrekin eraikitzeko.

Metamorfosi ekologikoa eta birbanaketa

- **«Fiskalitate berdeak» berrikusiak izan behar dira.** Praktikak jasangarritasun gehiagorantz bideratzea permititzen dute, baina eragin handiagoa dute landa eremuetako etxe apalenengan eta biztanleengan (adibidez, hiriguneek baino joan-etorri behartuagoak dituzte autoz). Zerga mota hori diru-sartzeen, bizitoki lekuaren eta ekipamenduen arabera bideratu behar da. Ipar Euskal Herri mailan ezartzea askoz ere egoki eta eraginkorragoa da frantses Estatuko eskalan baino.

- EHBaik proposatzen duen metamorfosiaren finantzaketarako erakundeak **justizia soziala eta metamorfosiaren eraginkortasuna uztartzea ahalbidetuko luke eta baita kostaldea-barnealdearen berrorekatzea** lagundu ere. Beraz, EHBaik proposatzen du fiskalitate ekologikoaren diru-sartzeak Euskal Hirigune Elkargoari esleitzea. Fiskalitate horren birbanaketa politika sozialki justua izan behar da (adibidez, mugitzeko autoa beste alternatibarik ez dutenei laguntzeko). Demokrazia parte hartzaile eta lokaleko neurriekin batera ere joan daiteke, ezarri beharreko neurriak buruz Ipar Euskal Herri mailan antolatu kontsulten bidez.



© Patxi Beltzaiz

ARLO SOZIALA

Krisi anitzen testuinguruan, hainbatek langileen eskubideak eta ahulenen babesak onartu ezin diren luxu gisa aurkezten dituzte. Eskubide eta babes horiek jendarte baten kohesioa atxikitzen dutela fite ahazten da. Kohesio hori EHBairentzat ondasun estimaezina da, eta beharrezkoa da babestea eta azkartzea, buru egin behar diegun erronkak gainditzeko aukera izateko. Beraz, langileen eskubideen defentsa eta ahulenen babesak lehentasuna da EHBairentzat.

Langileen eskubideak aitzinarazi

2022az geroztik inflazioak eragin berezia izan du biztanleria aktiboaren bizi-mailan, soldaten emendatzerik izan ez den bitartean. Gutien ordainduak diren langileek bete-betean jasaten dituzte azken hamarkadetakako politika neoliberalen ondorio diren lan bilakaerak, are nabarmenagoak direnak COVIDaren bukaeraz geroztik: zerbitzu publikoen suntsipena eta privatizazioa, lanaren intentsifikazioa, egokitzeko exijentzia, baina baita kontrol handiagoa ere. Egun, enplegu anitzek ez dituzte bizi duina garatzeko behar besteko diru-sartzeak bermatzen.

Euskal Herriko indar mobilizazioa, gure presentzia instituzionala eta baita lurralde guzietako mugimendu aurrerakoiekin dugun elkarlanari esker, mobilizazioetan parte hartzen segituko dugu, langile guzien eskubideak defendatzeko. EHBaiek, besteak beste, honakoa defendatzen du:

- **Produktibitate-irabazien banaketa hobe**a, langileen onurarako. Hori gertatzen da, noski, soldaten berbalorizazioekin, baina baita lanaldiaren murrizketarekin ere. Europako hainbat herrialdetan 32 oreneko asteari buruz egindako esperientziak oro har positiboak dira, bai enpresen ikuspegitik, bai langileen aldetik: produktibitate hobe, absentismo apalagoa, lan-giro hobe, estres eta burnout gutiago, bizi profesionalaren eta pertsonalaren arteko oreka hobe, enpleguaren eta gizon/emazteen arteko zaintzari dagozkion zereginen banaketa hobe.

Arrazoizko bizi maila eta soldata

EHBaik gutieneko soldata 1600 euro garbitan emendatu, emazteen eta gizonen arteko soldata berdintasuna lortu eta diru-sartzeen arteko aldea mugatzeko proposamenak partekatzen ditu.

- **Igandetako lanarekin bukatu.** EHBairen ustez, igande eta besta egunetan ez da lanik egin behar langileen atseden eskubidea errespetatzeko. Lanbide batzuei aplikatzen zaizkien salbuespenak (bereziki osasuna) pausa eta lansari egokiekin konpentsatu behar dira.

- **Langabezia asurantzaren** desegitea bilatzen duten erreformak eta langabetuen kontrolari buruzko 2018ko abenduaren 28ko dekretua indargabetu behar dira. Babes soziala pertsonari lotua izan behar da eta ez bere estatusari. Kontratu mugatua dutenak, sasoikakoak, behin-behinekoak, aldizkakoak, epe laburrekoak edota trantsizio profesionalean direnak babestu behar ditu. Egun lan ibilbide etenaldiak oso ohikoak dira, batez ere gazte eta emazteen artean, eta langabezia asurantzak errealitate hori kontuan hartu behar du. EHBaik bat egi-

nen du printzipio horiek defendatuko dituzten mobilizazioekin.

- **Erretreta egokia denentzat.** Babes sozialerako sistema pentsioetan oinarritzen da. Erretretak erabakigarriak dira lurraldeko biztanleen zati handi baten bizi-kalitaterako. Erreformaz erreforma, gobernu ezberdinak urte kopuru legala gibelatzen eta beharrezko kotizazio urteak aitzinatzen joan dira. 2023tik, frantses Gobernuak aurrekontuaren austeritatea justifikatu nahi du pentsio sistemaren ustezko arrisku baten ize-nean. Alta, CAC40 indizeko enpresek 146 miliar irabazi zituzten 2023an. Garaia da justizia soziala eztabaidaren erdian ezartzeko. Erreforma horrek gehiago baten kontrakotasun sozial eta politikoa izan bazuen ere, Emmanuel Macronen Gobernuak bere proiektua inposatu zuen. **EHBaik erreforma hori indargabetzeko eta erretreta 60 urtean finkatzeko mobilizatzen segituko du.** Gisa berean, 2023ko mugimendu sozialaren aldarrikapenak defendatuko ditu, hala nola:

- Frantses Gobernuak ezabaturiko nekagarritasun faktoreak berrezartzea.
- RSA kontuan hartzea, hiruhilekoak baliozkotzeko.
- Soldaten gainean pentsioen zenbatekoa indexatu.
- Dibidenduak, partaidetza, soldata aurrezkia, ekintza berrerosketak eta oren gehigarriak kotizatzea.
- Bost urtez zahartzaroko kotizazioak urteko 0,25 puntu emendatzea eta enpresarien kotizazio sozialak egokitzea.
- Soldata altuetan gailuztatzea bat sortzea.

EHBaik erreforma indargabetzeko eta erretreta 60 urtean finkatzeko mobilizatzen segituko du

Lan-baldintzak eta hitzarmen kolektiboak

Langileen lan-baldintzak Ipar Euskal Herrikan kanpo erabakitzen dira, Parisen edo Bruselan adibidez, lurraldeko errealitate soziala eta ekonomikoa kontuan hartu gabe. Negoziazio kolektiboek ez dute kontuan hartzen tokiko ordezkariak sindikala. Horregatik, EHBairen ustez, negoziazio kolektiboak Ipar Euskal Herri mailan egin behar dira, langileen lan-baldintzak eta eskubide sozial eta demokratikoak bultzatzeko.

Negoiazio kolektiboa lurraldean ahalbidetzea, bi guneren sorreraren bidez:

- **Publikoko langileentzako negoziazio kolektiborako gunea, Herriarteko Lurralde Batzorde Sozialaren (CSTI) gisakoa.** Urrats honek ekarriko luke:

- 50 langile baino guttiagoko kolektibitateetako langileen lana lurralde mailan antolatu ahal izatea, ez Pauen egun gertatzen den bezala.
- Elkarrizketa sozialerako instantziarik ez duten langileek negoziazio kolektiborako tresna ukaitea.

- **Pribatuko langileentzako negoziazio kolektiborako gunea,** Tokiko Batzorde Paritarioaren (CPL) gisakoa. Tresna honek bermatuko luke:

- Ipar Euskal Herrian presente diren sindikatuek duten sustengua neurtzea.
- Tokiko hitzarmen kolektiboak negoziatzeko leku paritario bat.

Bestalde, langileek beren lanetik bizi behar dute eta osasuntsu bizi. **Laneko osasuna bermatu** eta egiazko gaitza diren lan-istripuak saihestu behar dira. Egun, ez dugu Ipar Euskal Herriko errealitate horri buruzko daturik.

- EHBairentzat **Ipar Euskal Herriko lan osasunaren errealitatea** jakitea baitezpadakoa da. Proposatzen dugun **estatistika zerbitzu publikoaren** eginkizunetako bat datu horiek ematea izanen da. Gure lurraldeko lan istripuen arrazoiak ongi detektatu ahalko dira, ondotik behar diren neurriak zehazteko.

- EHBaik enpresetan prebentzio planen garapena eta langileen parte hartzea sustatuko du fase guzietan.

Babes soziala eta zaintza kolektiboa

Babes soziala eta sektore zaugarrienei ematen zaien arretaren kalitatea gure jendartearen kohesioaren bi zutabe dira eta, beraz, gure kezken erdian egon behar dute.

KONPETENTZIA SOZIALA IPAR EUSKAL HERRIAREN ZAT

Batetik, kompetentzia soziala frantses Estatuak eramaten du nagusiki, pobrezia planarekin edota jarduera ekonomikoaren bidezko gizarteratzearekin, adibidez. Bestetik, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak haurren eta familien babesarekin edota Elkartasun Aktiboko Errentaren (RSA) onuradunen laguntzaren eskumena du, besteak beste. EHBaik proposatzen du:

Ekintza sozial departamentalak Ipar Euskal Herriari kudeatzea. Ekintza sozialaren aurrekontua kudeatzeak eta Ipar Euskal Herri mailan egoera sozialaren diagnostiko bat egiteak ekintza soziala gure errealitatera egokitzea permitituko du, jendarte zein elkartasun mailan politika berritzaile eta aurrerakoiak plantan ezartzearekin batera.

Ekintza sozialaren aurrekontua kudeatzeak Ipar Euskal Herri mailan ekintza soziala gure errealitatera egokitzea permitituko du

Adineko pertsonen zaintzari begirako Ipar Euskal Herri mailako egitura publiko bat sortzea proposatzen dugu

LANGABEZIA

Iraupen luzeko langabetu gabeko lurraldeen esperimentazioa Ipar Euskal Herrian. Iraupen luzeko Lurralde Zero Langabetuak (TZCLD) esperimentazioa, egun, frantses Estatuko 75 lurraldetan hedatzen da. Tresna horrek, enplegutik urrun diren pertsoneri erantzun zehatz bat ematea ahalbidetzen du, ekonomia sozial eta solidarioko enpresetan kontratu mugagabeen kontratatuz sektore pribatuak hartzen ez dituen aktibitateetarako (birziklatzeak, janari saltegiak, garaje solidarioak...). **EHBaik Euskal Elkargoa dispositiboa esperimentatzeko hautagai izatea proposatzen du.**

ADINEKO PERTSONEN ZAINTZA

Aurreikuspenen arabera, Ipar Euskal Herrian jendarte zahartu eginen da ondoko urteetan. EHBaik uste du **populazioaren zahartzea desafio handi bat** dela. Zaintzarako eskubide unibertsala bermatzeko eta zaintza lanen banaketa justu batera heltzeko erantzun eraginkorrak behar dira. Honakoa proposatzen dugu:

Adineko pertsonen zaintzari begirako **Ipar Euskal Herri mailako egitura publiko bat** sortzea, hots, elkarbizitza, zahartzaro aktiboa eta gizarteratzea helburu lukeen estrategia plantan ezartzeko. Zaintza egitura publikoak sortu behar dira, zaintzaren pribatizazioa geldiarazteko eta herritar guzietan eskubide hori bermatu ahal izateko, hain zuzen. Bide horretan, lurraldeko Adinekoen Etxeak sortu eta kudeatzeko departamenduko eskumena edo Adinekoak etxean atxikitze

litika (Autonomiaren Prestazio Pertsonalizatua etxean, ezgaitasunaren konpentsazio prestazioa edo etxetz-etxeko laguntza soziala) eskuratzetik pasatzen da.

- **Lurraldeko diagnostikoa egin.** Lurralde Poloek eta Herriko Etxeek, tokiko egitura eta zainzaileekin batera, rol garrantzitsua jokatu behar dute eremu geografiko bakoitzean dauden beharrei erantzun eta politika publiko egokiak emateko.
- Zaindua egoteaz gain, adinekoek bizia manera autonomoan egiteko ikuspegia lantzea, bizi diren komunitatean lotura atxikitze laguntza eman.
- Instituzioetako (lurralde zein tokiko hautetsi) eta egitura ezberdinetako profesionalen zein langileen ordezkarier arteko **mahai bat sortzea.**

Herritarren zaintza sareak antolatzea, biztanleen eta instituzioekin lankidetzan. Adibidez, Hernaniko herrian egin duten gisan, 65 urtetik goitiko adinekoen bizi kalitatea hobetzea helburutzat hartuz, bakardadean edo bakardade arriskuan dauden pertsonekin lan egitea litzateke xedea. Gune sozialetan parte hartuz, bizilagunen artean harreman-sareak sustatzearen aldekoa da EHBai.

Zaintzaile eta laguntzaileen lan-baldintzen berrikuspenera eta harmonizazioa. Pribatutik publikorako trantsizio horretan, egungo lan-baldintza prekarioak gainditzea eta adinekoen zaintza lanetan ari diren langile guzietan baldintza duinak (soldata, gastuak, lan astea...) ukaitea izanen da funtsezko printzipioa.

Gazteriari etorkizuna eskaini behar zaio Ipar Euskal Herrian

GAZTERIA

Gazteriak Ipar Euskal Herrian bizi, ikasi eta lan egin ahal izateko, EHBaik gazte politika orokor bat proposatzen du, gazteen problematikei buru egiteko.

Urtero, 15 eta 24 urte bitarteko 3.000 gazte inguruk lurraldea uzten dute, eta 300 pertsonako migrazio-saldo negatiboa izaten da adin-tarte horretan. Irakaskuntzari doakioenez, gazteek beste leku batera joan behar izaten dute ikastera.

Prekarietateak nabarmen eragiten die 30 urtetik beheitikoei, %17,4ko pobrezia-tasarekin eta 26 urtetik beheitikoen artean %3,8ko emendatzearekin 2022tik 2023ra bitartean. Horrek bazterketa egoerak elikatzen ditu. Etxebizitza eskuratzea zaila da gazteen %90entzat, eta horietatik %40 larrialdi egoeran dira.

EHBaik uste du gaiari seriooki heldu behar zaiola eta **gazteriari etorkizuna eskaini behar zaiola Ipar Euskal Herrian**, bertan emantzipatu eta duintasunez bizi dadin. Horretarako, beharrezkoa da:

Gazte politika bat plantan ezartzea, etxebizitza, mugikortasuna, enplegua, soziala, osasuna, hezkuntza, kultura edota euskararen arloak kontuan hartuko dituen.

Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren **dispositiboak Ipar Euskal Herrira transferitzea**, hala nola, lanik gabe diren gazte behartsuenei laguntza bideratzeko Gazteentzako Laguntza

Funtsa (FAJ) edota gazteek goi-mailako irakaskuntzan ikasketak segitzeko beka.

EHBaik gazteriaren ekimenak babesten ditu. Iniziatiba horiek autogestionatzea, gazteen arteko harremanak sortzea eta proiektu kolektiboak garatzea permititzen du. Kolektibitateek autonomia hartze hori lagundu behar dute, gaztetxeekin bezala.

Euskal Herriko Misio Lokalaren rola indartu, 16 eta 25 urte arteko gazteak enplegu formakuntzara eta eguneroko bizira orientatzeko funtzio garrantzitsua betetzen duelako. Beharrezkoa da:

- Tokiko hautetsiekin harremanak eta erabakien hartzea azkartzea.
- Lurraldeko errealitatearen araberrako laguntzarako irizpideak finkatzea, bertako berezitasuna kontuan hartzen ez duen frantses Estatukoarenetan beharrean.
- Hego Euskal Herriarekin mugaz gaindiko proiektuak bultzatzea, Europan horretarako diren funtsak baliatuz enplegu, mugikortasun eta komunikazio arloetan. Azken honek euskara garatzeko parada eskaintzen du.

HAURTZAROA

Haurrek oinarrizko eskubideak dituzte: elikadura, ura, hezkuntza edota etxebizitza duin bat ukaiteko eskubidea, besteren artean. Haien osasuna, bere psikologia dimentsioetan bermatu behar da.

Horretarako, **hautzaroarentzat zerbitzu publiko sendo bat behar du Ipar Euskal Herriak** eta EHBaik egun Pirinio Atlantikoe-tako Departamenduak dituen eskumenak galdegiten ditu Ipar Euskal Herri mailako politika plantan ezarri ahal izateko. Hots, Haurrentzako Gizarte Laguntza (ASE), Ama eta Haurren Babesa (PMI), adopzioa edota arazo ekonomikoak dituzten familientzako laguntza bezalako eskumenak.

Pobreziaren kontrako neurriak

Biziaren garestitzea herritarren arazo handia bilakatu da. Egunerokoan pairatzen dute elikagaien, etxebizitzaren edo energiaren kariotzea. Oro har, bizi duin bat ukaiteko oinarrizko beharrak diren horiek izugarri garestitu dira. Azken urteetan areagotu egin dira prekariedade eta pobretze joerak. Bereziki kaltetuak izan dira emazteak eta baita gazteak ere. EHBaik gure lurraldeko herritarrak bigarren mailan izatea errefusatzeko du. Gure ahalegina egingen dugu justizia soziala eta inklusioaren alde.

Ipar Euskal Herrian, pobrezia tasa %12,3koa zen 2021ean. Aipatu pertsonak hilean 1.216 euro baino gutiagorekin bizi dira. Gazte anitz langabezia eta prekariedade jasateko arriskupean dira. 25 urtera arte ez dute Elkartasun Aktiboko Errenta (RSA) eskuratzerik. Formakuntzan diren anitzek beren ikasketak finantzatzeko lan egin behar dute, ikasketak lanjerrean jarriz.

Zerbitzu publikoetarako sarbidea eta prestazioak jasotzeko eskubidea denei bermatu eta gaurdanik, pobrezia egoeran diren herritarren arazoei erantzun azkarrak eman behar zaizkie. EHBairen proposamenak:

- **Laguntzen eskuragarritasuna hobetu.** Egun, Elkartasun Aktiboko Errenta (RSA) jasotzeko eskubidea duten herritarren %44k ez du dossiera aurkezten, ez direlako jakinean edota eskuratzeko zailtasunengatik.
- **Elikadura Seguritate Soziala plantan ezartzeko urratsak egitea** eta ahal den toki guzietan plantan ezartzea. Gisa horretan, egun hedatzen ari den elikadura pobrezia aurre egiteko aukerak hobetuko dira eta elikadura osasungarri bat sustatuko da, tokiko ekoizpekin eta bertako laborari zein ekoizleen garrantzia ere bermatuz.
- **Gutieneko diru sartzak bermatzeko errentaren esperimentazioa plantan** ematea aztertzea.

Diru-sartze bermatua da, eta parada ematen du gutienez pobrezia mugaren baliokideak diren baliabideak eskuratzeko. Grande-Synthen esperimentatu den neurria da, hainbat elkartetan bultzaturik. Frantses Estatuko Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen Kontseiluaren «2030erako pobrezia handia desagerraraztea» irizpenak aipatzen duen lehen neurria da.

EHBaik bere ahalegina egingen du justizia soziala eta inklusioaren alde

OSASUNGINTZA

Osasun sektorea zerbitzu publikoen desegitea pairatzen ari da eta krisi ekologiko zein sozialek herritarren osasunean eragina duten testuinguru batean, Ipar Euskal Herrian erronka zehatzei buru egin behar diegu: zahartzea, lurralde desoreka, osasun zerbitzuen koordinazio eskasa...

Tokiko mailan, Eskualdeko Osasun Agentziak (ARS) eta prefetak dira frantses Gobernuak erabakitako osasun politikaren gauzatzea gidatzen dutenak. Beraz, deskontzentrazio logika batean gara, ez deszentralizazio logika batean: dena Parisetik iragan behar da, malgutasun eta eraginkortasun eskas nabarmenarekin.

Ipar Euskal Herri mailako Tokiko Osasun Kontratu (CLS) bat egin da 2022-27 eperako. CLSaren sortzea **osasun arloko tokiko ekimen anitzei** esker posible izan da, eta horien bidez, osasunaren hurbilketa transbertsal baterako egokitasuna berresten da, zaintza, prebentzio, laguntza...



Gure lurraldeko osasunaren antolaketa politika guziekiko begirada duen instantzia batek gidatu behar du



© Guillaume Fauveau

Lurraldeko desafio zehatzak testuinguru zail batean

Ipar Euskal Herriak erronka anitz ditu osasunaren arloan, eta horien artean lehen lerroan **biztanleriaren zahartzea** nabarmentzen da: 65 urtetik goitiko 118 pertsona ditu 20 urtetik beheitiko 100 pertsonako. Biztanleria jadaneko zaharra da eta joera hori emendatzen ari da: 20 urteren buruan, proiektzioen arabera, Euskal Hirigune Elkargoko biztanleen heren batek baino gehiagok 60 urtetik goiti izanen ditu, eta %17k 75 baino gehiago. Ondorioz, artatzeko beharra, bereziki **eritasun kronikoak** tratatzeko, emendatzen ari da. Errealitate hau Ipar Euskal Herriko orotako medikuen laurden inguru 5 urteren buruan erretreta hartzen ahalko duen testuinguru batean gertatzen da.

Beste ahulezia **barnekaldeko osasun profesionalen eskasia** da. Lurraldearen ekialdeko herri

Osasun politika publiko eraginkor batek artatze sistematik haratago joan behar du

guziak Ekintza Osagarriko Eremuan daude (hots, medikuen dentsitate apala baieztatzen da). Donapaleuko Ospitaleko profesional anitzek lanaldi partzalean lan egiten dute (beren jardueraren zatirik handiena Baionan dutelarik), eta horrek arazoak sortzen ditu osasunaren segimenduan eta praktiken homogeneizazioan. Mauleko Ospitaleari dagokionez, ez da Nafarroa-Euskal Kostaldea Ospitale Elkargoari atxikia, baizik eta Biarno eta Xiberokoari, Paueko ospitaleak gidaturik. Horrek anitz ahultzen du lurralde mailako osasun-dinamika batean murgiltzen ez den egitura. Lurralde horietan ikusten denez, osasun-profesionalak ez dira hain ohikoak, eta biztanleak, berriz, zaharra goak dira.

Biztanleen osasuna da frantses Estatuan gobernuek bideraturiko **zerbitzu publikoen desgitearen** lehen biktimitako bat.

Krisi ekologikoak, bestetik, bete-betean eragiten dio osasunari. Nitrogeno oxidoen (batez ere garraioen ondorioz) edo partikula finen (laborantzatik eta bizitegietatik heldu dena) kutsadura handia da, eta herri anitzetan kontsumorako uraren kalitateak ez du bat egiten kalitate bakteriologikoaren erreferentziekin. PFASS motako betiereko kutsatzaileen presentzia anormala atzeman izan da erreka ezberdinetan eta edateko uraren banaketan.

Etxebizitzaren egoera kritikoak osasun arazoak larriagotzen ditu populazio prekarioenen artean, batzuetan bizitegi zahar edo sanotasunik gabekoetan bizi direlako.

Osasuna, politika guzien erdigunean

Munduko Osasun Erakundearen (MOE) arabera, «osasuna erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera da, eta ez da eritasunik edo elbarritasunik ez izatean oinarritzen soilik»; eta «pertsonek edo herritarren osasun egoera zehazten duten faktore pertsonal, sozial, ekonomiko eta ingurumeneko» menpe da. Bada, mugatzaile horien hiru laurden baino gehiago osasun-sistematik kanpokoak dira. EHBairen ustez, **osasun politika publiko eraginkor batek artatze sistematik haratago joan behar du.** Programa politiko honen gainerateko ataletan bezala, edozein erabaki politikok gure osasun publikoaren helburuekin bat egiten ote duen galdegingo dugu.

Lehentasunezko hainbat ardatz

EHBaik osasun prozesu parte hartzailea defendatzen du, MOEk hala definitzen duena: «Kolektibitate geografiko edo sozial bateko kideek, talde bereko kide direla kontziente izanik, beren osasunaren arazoei buruz elkarrekin gogoetatzeko, lehentasunezko beharrak adierazteko eta lehentasun horiei erantzuteko jarduera egokien ezarpenean, garapenean eta ebaluazioan aktiboki parte hartzeko prozesua». Ipar Euskal Herrian, konponbide berritzaileak sortzen ahal dira, CLSk proposaturiko hainbat ekintzek erakusten duten bezala. Ikusmolde hori aski garatua da Hego Euskal Herrian ere, eta, beraz, garrantzitsua da arlo horretan elkarlana indartzea.

Osasunarentzat onuragarriak diren praktikak sustatzea proposatzen dugu: bizitegien isolamendua, garraio aktiboaren garapena (oinezkoa, bizikleta), errepide bidezko garraioa burdinbideengatik ordezkatzeko, laborantza herrikoia eta biologikoa bultzatzea... Gisa berean, proiektu berri ororen kostuaren balorazioan, bere kanporatze negatiboena sartu behar da (kutsadurak eragindako eritasun kronikoen tratamendua, adibidez).

Mauleko Ospitalearen geroa Euskal Kostaldeko Ospitale Elkargoaren geroarekin lotzea galdegingo dugu

Biztanleriaren zahartzea antzipatu eta isolamenduaren aurka borrokatu nahi dugu, hurbileko zaintzaileak babestuz eta giza arreta molde inklusiboak garatuz (formakuntza eta aholkularitza, aldi baterako harrera...) edo isolamenduaren aurkako borroka. Geriatria zerbitzuen eskasia kronikoa da, beraz, horien finantzaketak berbalorizatua izan behar du, denboran zehar arreta behar duten adineko pertsona guziak errezibitu ahal izateko eta etxean atxikiak izan ez daitezten. EHBaik Min Kronikoaren Artatze Egiturak (SDC) lurraldean indartu eta biderkatzea proposatzen du.

Gure lurraldeko osasunaren antolaketa gidatu

Zaintza orekatzeko (diziplina anitzeko osasun etxeei sustengua, osasun poloak) edo populazioaren eta mediku taldearen zahartzea antzipatzeko (formakuntza, osasungintzako lanbideen berbalorizazioa) palanka garrantzitsu ainitz Akitania Berria Eskualdearen esku dira oraino. Bestalde, mugaz gairako esparrua gutiegi hartzen da kontuan, justuki, aukerak daudenean osagarritasun egoki baterako, bai arreta-eskaintzan, bai prebentzioan, bai laguntzetan.

Sektorearen desarautzeak (edo pribatizazioaren emendatzea) ez du pazienteak behar bezala artatzen uzten. Okerrago, elkarte publiko-pribatuek anitzetan zentzugabeko egoerak sortzen dituzte, hala nola, sistema informatikoen bateraezintasuna zerbitzuen artean.

Lurraldearen osasuna Ipar Euskal Herri mailako instantzia bakar, koherente eta eraginkor batek gidatu behar du.

- **EHBaik osasun sistemaren zerbitzu publikoaren misioa sustengatzen du.** Artatzaile profesionalak baldintza material onetan lan egiteko baliabideak izan behar dituzte, mediku-sozialaren ekintzaren zentzua berreskuratzeko. Ordainsarien gaintzeen erregulatzea defendatzen dugu, jarduera pribatua baldintzatuz pazientearentzat zero gastuaren heinekoa errespetatua izan dadin, osasun etxeen gobernantzaren bermoldatzea edota ospitaleko zerbitzuen «aktibitateetarako tarifakazioarekin» bukatzea. EHBairentzat, osasuna ez da zerbitzu publiko soil bat. Arretaren, elkarrekiko babesaren, elkartasunaren eta elkar laguntza komunitarioaren jendarte bat eraikitzeke dugun nahiak, merezi duen bokazio soziala ematen dio osasunari.
- Eskualdeko Osasun Agentziari (ARS) galdegiten diogu administrazio zatiketak berrikusi eta **Mauleko Ospitalearen geroa Euskal Kostaldeko Ospitale Elkargoaren geroarekin lotzea**, zeina, Euskal Herriko Lurraldeko Ospitale Elkargoa bilakatuko litzatekeen.
- **Kostaldearen eta barnekaldearen arteko arreta-eskaintza berrorekatzea.** EHBairen lehentasunetako bat da, urritasunak dituzten eremuetan osasun zentroak irekiz eta lurralde osoan medikuen hedapena sustatuz. Osasun etxeak plantan ezartzea aukera bat da, medikuntza eta paramedikuntzako pertsonala bilduz (berriki sortu diren Donapaleu, Barkoxe, Atharratze eta Mauleko osasun etxeak bezala, adibidez).
- **Berrikuntza etiko bat sustengatu Euskal Herri osoko eskalan.** Europako beste nazioek bezala, Euskal Herriak subiranotasuna eskas du sendagaien ekoizpenari dagokionez, eta osasun arloko ikerketa multinazionalen interresetara bideratu ohi da, guzian onerako bi-

deratu beharrean. EHBaik herritarren mesederako sektore hori berriz bereganatzeko bidean doazen ekimen guziak defendatuko ditu. Uste dugu posible dela Euskal Herriaren gure nazioaren indarra egiten duten balio kolektiboetan oinarrituriko osasun ekosistema bat garatzea, ekonomia edo laborantza arloetan adibidez.

- **Ospitale Publiko eta Pribatuko arreta eskaintza baten artikulazioa ezinbestekoa da,** bereziki lurraldean banatuak diren larrialdi zerbitzuei dagokienez.
- **Formakuntza, ezinbesteko palanka da gisa honetako osasun ekosistema bat eraikitzeke.** Euskal Herriko ikasleen sarbidea bermatu behar da hiru entitate politikoetako (Euskal Hirigune Elkargoa, Nafarroako Foru Erkidegoa, Euskal Autonomia Erkidegoa) formazioetara. Horri esker, gazteak Euskal Herriaren trebatu ahal izanen dira, lurraldeko osasun beharrei erantzun ahal izateko.
- **Prebentzioa eta osasunerako heziketa haurtzarotik,** bizimolde osasungarriak sustatzeko eta eritasunei aitzin hartzeko ahaleginak emendatu beharko lirateke. Honek sentsibilizazio kanpainak, osasun heziketa programak eta ekimen komunitarioak barne hartzen ditu.
- Egun, osasun sisteman **euskararen lekua eta mugaz gaindiko lankidetzak ez daude izan litezkeen mailan,** nahiz eta ekimen interesgarriak izan. Euskal hiztunek beren hizkuntzan komunikatzeko parada izan behar dute. Halaber, mugaz gaindiko unibertsitate formakuntzak erraztuz, gure ehun ekonomikoarekin loturak bultzatuz eta Euskal Herriko ikerketa ahaleginari lagunduz, **gure gazteriarik tokiko eta zentzuzko lan perspektibak eskaini** ahal izanen zaizkio.

LURRA ETA ETXEBIZITZA

Etxebizitza eskuratzeko problematika gero eta arazo handiagoa da. Egun, diru-sartze duinekin kontratu mugagabeen denbora osoz lan egitea ez da aski bizitegi bat eskuratzeko. Ipar Euskal Herriko biztanleen %75ak etxebizitza sozialetarako hautatua izateko posibilitatea du. Oinarrizko eskubide hori ez dago segurtaturik, besteak beste, populazioa gero eta handiagoa delako. Botere publikoek emendatzen joan den sistema espekulatiboaren aitzinean izan duten ekintza ezak noraezean murgildu du lurraldea azken hamarkadetan.

Mugimendu abertzalearen baitan kontzientzia aspalditik heldu da. 70-80ko hamarkadetan, ezkerreko mugimendu abertzaleak egoera salatu eta aterabideak proposatzen zituen.

Publizitate sustapen kanpainak emendaturiko Ipar Euskal Herriaren erakargarritasunak, eskariaren eztanda, eskuragarri diren ondasunen eskasia eta prezioen emendatzea eragin ditu.

Higiezinaren merkatuaren arautzea eta luraren babesa

Higiezinaren merkaturia arautu behar da. Botere publikoek esku hartzeko ahala ukan behar dute denentzat bizitegi bat bermatzeko. Hori lortzeko, EHBAik neurri hauek proposatzen ditu:

“Tentsiozko eremuko” herrien zerrenda zabaltzea

Egun, Euskal Hirigune Elkargoko 158 herrietarik soilik 24 dira eremu horretan eta dispositibo batzuk baliatzen ahal dituzte, hala nola, bigarren etxebizitzaren gaineko zerga, alokairuen koadro sendotua eta etxebizitza turistikoei ezartzen zaien konpentsazio neurria. Beste herriek ez dute neurri horiek plantan ezartzeko aukerarik. EHBAik herri guztiak beren eskariz «tentsiozko eremuan» sartzea proposatzen du.



- **Laborantza lurak erosteko lehentasun eskubidearen erreforma egitea.** Tokiko kolektibitatei tresna berriak proposatu behar zaizkie, erosteko lehentasuna bultzatzeko eta laborantza lurren babesteko. Bizitegi erabilerrarako eraikina duten laborantza lur eremuen salmantan, legeak bizitzeko zatiaren eta laborantza zatiaren arteko zatiketa baimendu behar du, lurak zaindu ahal izateko.
- **Etxebizitzen prezioen koadroa plantan ezarri.** “Tentsiozko eremuan” diren 24 herriak alokairuen koadro sendotuan sartu dira. Baina gogoeta lurraren preziora ere hedatu behar da, eta hori erregulatzea komeniko litzateke, metro karratuko prezioa mugatzeko sistema bat ezarriz.
- **Bizitegi nagusian gainbalioen zerga saihesteari aurre egin,** eta bizitegi nagusiaren aitorpenaren iruzurra borrokatzeko dispositiboak ezarri.

Etxebizitza soziala Ipar Euskal Herri mailan kudeatu

Bizitegien Adjudikazio eta Okupazioaren Azterketa Batzordea (CALEOL) eta Bitartekaritza Batzordea (COMED) Pauen kudeatzen dira; horrek, bereziki, Euskal Herriko familiak Biarnon bizi behar izateko arriskua sortzen du. HLM alokatzaileen ordezkarien hauteskundeak ere Ipar Euskal Herriko eskalan egin beharko lirateke, hauteskunde horiek ez baitira iragaiten zenbait alokatzaile sozialen perimetroan.

Lurra eta bizitegien kudeaketa publikoa

Tokiko Lur Erakunde Publikoak (EPFL) lurra publikoki menperatzea permititzen du. Bere iraupena bermatuko duen eredu ekonomiko bat atzeman behar dugu, ainitzez manera azkarragoan erabili ahal izateko eta epe luzeko lur erreserbak osatzeko.

- **Lur publikoak automatikoki promotoreei ez utzi.** Alokairu Erreal Solidarioari (BRS) esker, erosten duten pertsonen erosteko prezioa apaltzen da, lurraren jabetza eta eraikuntzarena bereiziz. Honek, lurraren jabetza eremu publikoan atxikitzea permititzen du. Gainera, bersalmentaren prezioa mugatua da eta etorkizuneko erosleek hautagarritasun irizpide sozial batzuk egiaztatu behar dituzte. Gisa horretako mekanismoak arau izan behar dira: edozein jabego sozialera heltzeko, espekulazioaren kontrako klausulak ez dira denboran mugatu behar eta hunkituriko bizitegiek etxebizitza sozialak izaten segitu behar dute.
- **Berrerosteko politika bat bultzatu.** Konpentsazio neurriaren aplikatzearen ondorioz, adibidez, etxebizitza sozial lausoa egitea permitituko luke, jabego sozialera heltzeko erraztasunak emanez. Horretarako, Jabetzan Progresiboki Sartzeko SClak (SCIAPP) bezalako neurriak sustatu behar dira, baliabiderik gabeko familiak jabetzan sartzea ahalbidetzen baitute.

Bizileku moldea aldatu

- **Bizitegi kolektiboa lagundu.** Bakoitza baratze eta igerilekuarekin hornituriko etxe indibidualaren jabetzaren eredu sozialki eta ingurumenaren aldetik ez da jasagarria. Lurraldean bizitzeko manera berentsatu behar da, espazio gutiago behar duten bizilekuetara joanez. Izpiritu horretan, partaidetzazko bizitegiak eta belaunaldien arteko elkarbizitza bezalako formulak bultzatu behar dira, adinekoen isolamendua ere saihesteko.
- **EHBaik beren bizitegien kudeaketan biztanleen parte hartze aktiboa sustengatzen du.** «Komunen» kudeaketaren logikan, bizileku parte hartzailea eta biztanleen kooperatibak babesten ditugu.

Ipar Euskal Herriko etxebizitza parkearen %21 bigarren bizitegiak dira

Etxebizitza bat ukaiteko eskubidea lehenetsi, bikan beharrean

Bigarren bizitegiek osatzen duten etxebizitza parkearen %21arekin, Ipar Euskal Herriko etxebizitza anitz hutsik daude urtearen zati handi batean. Euskal Herriak ezin du onartu bizitegien proportzio hori gutiegi okupaturik izatea, populazioaren zati handi batek ezin duenean bizitegirik ukan. EHBairentzat, etxebizitza eskubidea ez da bigarren mailakoa.

«Tokiko turismo mublaturak arautzeko tresnak indartzeko» Echaniz-Lemour legea, Frantziako Asanblea Nazionalak onartu zuen 2024ko udazkenean. Ipar Euskal Herriko mobilizazioari anitz zor dion aitzinamendua da legea. Bereziki murriztu egingen du turismo mublaturaren onura fiskala. Orain, mozketaren fiskala %50ekoa da (%71ren ordean) turismo mublaturaren sailkatuentzat, eta %30ekoa (%50aren ordean) sailkatu gabekoentzat. Zenbait kasutan, Tokiko Hirigintza Planetan etxe berri guzietan bizileku nagusi gisa soilik erabiltzeko sektoreak mugatzeko aukera ere ematen du. Aitzinamendu horiek positiboak dira, baina ezin da horretan gelditu. Urrunago joateko, EHBaik neurri hauek proposatzen ditu:

Egoiliar estatutu baten plantan ezartzea

Ondasun bat eskuratzeko gaitasuna lurraldean hainbat urtez bizi izan diren pertsoneri soilik erreserbatuko litzaieke. Neurri horrek bizitegien salmenta prezioak biztanleen errentekin parekatzea permitituko luke.

Bigarren etxebizitzaren gaineko fiskalitatea azkarki emendatu

Fiskalitatea bigarren bizitegien hedapena saihesteko baliabide bat da. Bigarren bizitegi bat eskuratuz gero, lekualdaketa-eskubideak gutierrez bikoiztu egin beharko dira. Fiskalitate berri hori Herriko Etxeek eta Euskal Hirigune Elkaragoak kudeatu behar dute. Diru-sartzeak baliabide berriak ekarriko dituzte etxebizitza sozialak ekoizteko edo EPFL diruztatzeko.

- **Iraupen luzeko alokatzeen gaineko fiskalitatea bultzatu** (hiru urteko alokatzeetan, mublaturik gabe), egun etxebizitza mota horretarako %30ekoa den beherapen fiskala %50era pasatuz.

- **Mublaturiko bizitegiak alokatzeko aukera azkarki finkatu**, edo mugikortasun motako alokairu indargabetzaileekin. Hiru urteko alokairuak baino ainitzez prekarioagoa den alokairu mota hori salbuespena izan behar da.

- **Bizitegi nagusiaren aitortzearen iruzurraren kontra borrokatzea**, gero eta ohikoagoa baita zergak eta konpentsazio neurriaren aplikazioa saihesteko. Kontrol eraginkorra eta iruzur hori zigortzeko moldeak behar dira.

- **Bigarren bizitegiak etxebizitza sozialen partearen kalkuluan sartzea**. SRU legeak herri batzuk behartzen ditu %25eko etxebizitza sozialak ukaitera. Ehuneko hori bizitegi nagusien arabera kalkulatu da. Herri batzuek beren etxebizitza sozialen zatia emendatzen ikusten dute, haien kopurua emendatu gabe, bigarren bizitegien emendatze hutsagatik.

Urgentziazko bizitegi irisgarrien aldeko plan bat

Jende anitzek ez du bizitegirik eta beste hainbat langile beren autoan lo egitera behartuak dira. Kolektibitateek larrialdiko aterpeak ukan behar dituzte etxegabeei, bortizkeria sexisten biktimei eta alokairuaren haustea pairatzen duten pertsonei harrera egiteko.

Hirigintza ekologikoa

- **Hiriaren hedapena saihestu.** Behar-beharrezkoa da hiriko hedadura gehiago ez zabaltzea, lurra-
ren kontsumoa eta lurraldeko berotegi efektuko gasen isurketen kasik herena diren joan-etorriak mugatzeko. Horretarako, herriguneak dentsifikatu eta estaien kopurua emendatu behar da. Bizileku parte hartzaileei esker, espazioa aurrezten ahal da, ekipamendu partekatuen bidez.
- **Lurra aurrezten duen hirigintza.** Bizitegiak ekoiztu, lur gehiago kontsumitu gabe, hirien berritze eta hutsik diren etxebizitzaren zaharberritzearen bidez.
- **Ingurumenarekiko arduratsuak diren bizitegiak.** Bizitegien baldintzak hobetu behar dira, energia berritzeko plan bat garatuz. Horri esker, herritar-
rak hilabete bukaerara hobeki ailegatuko dira eta klima desorekaren aurka borrokatuko da. Hego-Akitaniako eraikin arinen mapak, bestalde, habitat proiektu osasungarriak, kualitatiboak eta ingurumena errespetatzen dutenak diseinatzeko segitu beharreko printzipioak adierazten ditu.
- Legeak baimentzen duen **hutsik diren bizitegien errekesizioa egitea** tresna baliagarria izan liteke lurraldeko biztanleei bizitegi bat emateko.

Krisi ekologikoaren aitzinean,
lurraren zero-artifizializazio-
rantz jo behar dugu

FEMINISMOA

Egun, sistema heteropatriarkal batean bizi gara eta horrek desberdintasunak eta diskriminazioak sortzen ditu gure jendartean. Argi eta garbi adierazi behar da: ez da emazteen eta gizonen arteko berdintasunik eta emazteek zapalkuntza sistemikoa pairatzen dute: prekarietatea, soldata arrakala, zaintzaren ardura edota bortizkeria sexistaren biktima izatea.

EHBairen xedea jendarte osoaren ongizatea da eta horretara heltzeko, eraldaketa prozesu sakon bat proposatzen dugu. Horrek, jendarte zibila, mugimendu feminista, aktore sozio-ekonomikoak, instituzioak eta oro har jendarte osoaren engaiamendua eskatzen du.

Ipar Euskal Herriak oraino ez du baliabide instituzionalik emazteen eta gizonen arteko berdintasun politika aski anbiziotsua plantan ezartzeko. Egun indarrean diren tresnak ez dira aski. Mobilizazio sozialari esker urratsak egin dira. Euskal Hirigune Elkargoak emazte eta gizonen Berdintasunerako Europako Xarta izenpetu eta herrientzat berdintasunerako gida praktikoa osatu du. Alta, urrats sakonagoak behar dira.



© Luis Jauregiartzo

Politika publiko bat

EHBaik emazteen eskubideez eta genero berdintasunaz arduratuko den zerbitzu publiko bat sortzea proposatzen du, erraterako, Euskal Autonomia Erkidegoan den bezala.

- Genero berdintasunerako politika publiko bati buruz egiazko gogoe-ta ireki behar da. Hori dela eta, eragile feministak eta emazteen eskubideen alde ari diren egiturak barne hartuko dituen **koordinazio gune baten sortzea** proposatzen dugu.

- Lurraldeak hertsagarriak diren planak dituen bezala (Tokiko Etxebizitza Plana, erraterako), Ipar Euskal Herriak **Berdintasunerako Tokiko Plan** bat behar du, genero ezberdintasunari buru egiteko helburu zehatzak finkatu eta urtero bilanak egitea permitituko duena.

- Ildo horretan, Hego Euskal Herriko instituzio ezberdinekin harremanak estutzea beharrezkoa da, arlo honetan izan diren esperientziatik inspiratzeko.

- Genero berdintasunerako politikak **aurrekontu berezitu bat** ukan behar du, formakuntzarako, sentsibilizatorako, proiektuak diruztatzeko (Emazteen Etxea), prebentzio kanpainak egiteko eta baita elkarteen ibilmoldea segurtatzeko.

- Politikaren maila guzietan **emazteen parte-hartze espezifiko**a sustatzeko ekintza positiboak abiatu behar dira (kontzientziazkoa, haurren zainketarako zerbitzuak...).

- Elkarte feministek bultzaturik Urruñan ireki den Ipar Euskal Herriko lehen **Emazteen Etxea** sustengatzen dugu eta lurraldeko instituzioek, bere lana osoki garatzeko behar duen sustengu ekonomikoa segurtatu behar dute, betiere bere autonomia atxikiz.

Bortizkeria sexistarekin bukatu

Emazteek jasaten duten bortizkeria sexista gaitz iraunkorra da. Bere adierazpenik handiena feminizidioa bada, bortizkeria psikologiko eta fisiko hori, batez ere, egunerokoa da. Gure jendarteko gune guzietan aurkitzen ahal da: familia, enpresa, besta, kirola, kultura, erakundeak, hedabideak...

Azken urteetan izan diren emazteen erailketek agerian uzten dute **egungo mekanismoek huts egiten dutela**, ez direla egokiak eta lurraldeak bortizkeria sexistari buru egiteko ezintasuna duela. Justiziak, poliziak eta eskuduntza duten autoritateek ez dituzte emazteak aski babesten. Izan ere, bortizkeria egoerak ezagutzen dituzten kasuetan ere, usu, ez da babes neurririk hartzen.

Gardentasun eza. 2024an jakin denez, **Ipar Euskal Herrian urtero 800 inkesta** irekitzen dira bortizkeria sexisten harira. Kopuru hori, berez, ez da aski Ipar Euskal Herriko genero bortizkeriaren inpaktua mugatzeko. Ez da salaketa, epai eta kondena kopuruari buruzko informaziorik, baina ezta zigor horiek aplikatzeko moldeari buruzkorik ere. Azkenik, eta batez ere, jakin beharko litzateke nola artatu diren bortizkeria horien biktima izan diren emazteak.

Bortizkeria sexistari buru egiteko, EH Baik honakoa proposatzen du:

Lurraldeko bortizkeria sexistari buruzko diagnostiko espezifiko bat egitea, zeinak balio behar lukeen autoritate eskudunek atxikitzen dituzten datuak ukaiteko. Diagnostiko honek errealitate honen neurria hartzea permitituko du eta baita erantzun egokiak emateko ekarpena egin ere.

Ipar Euskal Herri mailan bortizkeria sexistaren kontrako protokolo bat plantan ezartzea, biktimak babesteko, beren eskubideak errespetatuak direla segurtatzeko eta bortizkeria egoeratik ateratzeko prozesuan laguntzeko. Protokolo honek erantzun instituzional bat galdegiten du, eragileen erantzun sozialari lotua.

Bortizkeria sexistaren kontrako **sentsibilizazio-kanpainak** antolatzea, mugimendu feministarekin elkarlanean, bereziki gazteei arreta ezarriz.

Sexu aniztasun eta askatasuna

Sexu eta genero aniztasun zein askatasunaren kontrako diskriminazio-egoerak eta gorroto-ekintzak emendatu egin dira azken urteetan. Hainbat urrats egin badira ere, eredu heterosexual eta gorputz normatiboetatik ateratzen diren pertsonak diskriminazioa pairatu behar izaten dute. Emazteen eskubideen eta genero berdintasunerako zerbitzu publikoa arduratuko da **elkarbizitza eta elkartasuna bultzatuko duten ekintzak** eta politikak garatzeaz. EHBaik proposatzen du:

- LGTBI+ kolektiboekin adosturiko planifikazioa plantan ezartzea, sexu eta genero-askapenaren bidean aitzina egiteko neurriak bilduko dituena.
- Jendartearen sexu eta genero-identitateen inguruan kontzientzia aldaketa bultzatzeko sentsibilizazio eta hezkuntza mailako neurriak hartzea.
- Parte hartzeko mekanismo iraunkorrak aktibatzea administrazio publikoaren eta LGTBI+ kolektiboaren artean, haien premia eta interesen berri izateko.
- Protokoloak aktibatzea sexu-identitate edo genero-adierazpenen araberako diskriminazio, jazarpen eta bortizkeria kasuei aurre egiteko.

EUSKARA

Lurraldeak nahikeria bat du euskararen biziberritze prozesuan aitzina egiteko

Euskararen egungo egoera kezagarria da Ipar Euskal Herrian. UNESCOk hizkuntza batek bizirauteko ezartzen duen hiztunen %30etik oso beheti gara (%20) hamasei urtetik goitikoan artean. Azken inkesta soziolinguistikoek erakutsi dute euskal hiztunen kopuruaren apaltzea gelditzea lortu dela, baina demografiaren hazkundearekin, euskal hiztunak proportzioan gero eta gutiago dira. Aldiz, herritarren zein eragileen artean euskararekiko aldekatasuna zabala da eta honek erakusten du, lurraldeak nahikeria bat duela euskararen biziberritze prozesuan aitzina egiteko.



Euskara guzientzat hizkuntza bilakatzea lortu behar dela uste du EH Baik, komunitate gisa kohesionatzen gaituelako, nortasun propioa ematen digulako eta herritarrentzat aukerak sortzen dituelako. Euskarak ez du nehor baztertzen, guztiz kontrakoa, hizkuntza integraztailea eta egituraztailea da. Euskal hiztunek, frantses hiztunek dituzten hizkuntza eskubide berak izan behar dituzte eta bereziki, Ipar Euskal Herrian euskaraz bizi ahal izatea bermatua izatea.

Halaber, EH Baik hizkuntza gutituen alde egiten duen heinean, gaskoiak ere lege aitortza eta sustapenerako politika bat behar dituela aldarrikatzen du.

Lege babesa, ofizialtasuna

Frantses Estatuaren baitan frantsesa ez diren hizkuntza gutxiagotuek ez dute neholako eza-gutza ofizialik, ezta hizkuntza horiek mintzatzeko dituztenek eskubide aitorturik ere. Aldiz, EHBaik euskararen ofizialtasuna eta koadro berri bat baitezpadakoa direla uste du, hizkuntza batek lege babesik gabe nekez lortzen baitu garapen bat ukaitea eta bere hiztunen eskubideak segurtatuak izatea.

- Ipar Euskal Herrian euskara, gaskoia eta frantsesa izanen lirатеke hiru hizkuntza ofizialak.
- Lurraldeko herritar orok hiru hizkuntzak normaltasunez baliatzeko eskubidea luke.

Hizkuntza politika berria

Egun, Frantses Estatuak, Akitania Eskualdeak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak eta Euskal Hirigune Elkargoak osatzen dute hizkuntza politika kudeatzen duen Euskararen Erakunde Publikoa (EEP). EEPn borondate arrunt ezberdinak daude. Euskalgintzako eragileen ustez, euskara biziberritzeko baliabideak emendatu beharko lirатеke, baina horri

buruz ere ikuspegi ezberdinak daude EEPko partaideen artean. Erakundeen arteko lan-kidetza beharrezkoa izanki, Euskal Herrian hizkuntza politika berri baterako aldaketak egin behar dira, **ondoko hogeitun euskal hiztunen kopurua %30era emendatzeko anbi-zioarekin**. EHBaik proposatzen du:

- **Hizkuntza politikaren eskumena** lurraldean azkartzea. Euskal Hirigune Elkargoak erabakiak hartzeko ahalmen gehiago ukan behar du EEPn, heldu diren urteetan euskararen normalizazio prozesuan jauzi kualitatiboak egin ahal izateko.

- Euskalgintzarekin elkarlanean, erakunde publiko guzietan ezartzeko **hizkuntza politika berria definitzea**, manara koordinatuan eta planifikatuan, errealitate geografikoak, demografikoak eta sozio-linguistikoak kontuan hartuz.

- **Hizkuntza eta kultur politikaren** arteko egungo bereizketa gaintitu eta elkar lotura bermatzea, kulturak hizkuntzaren normalizazioan eta hedapenean duen eragina handia delako.

- Euskara normalizatzeko baitezpadakoa diren euskalgintzako egituren egoera prekariora gaintitzeko eta euskararen ezagutza zein erabilera zabaltzeko **dirulaguntzak eta baliabideak emendatzea**.

Euskararen ezagutza

Hizkuntza baten ezagutza ezinbestekoa da bere erabilera eta garapena segurtatzeko, baina horretaz harago, aukera berriak ere irekitzen ditu elebidunak diren pertsonentzat.

Euskara ikasle guzien esku

Egun, murgiltze ereduari edo sail elebidunean soilik ikasleen %28 ari da ikasten eta horien artean Seaska da murgiltze eredu lizeorainoko ikas maila guzietan bermatzen duen egitura ba-

karra. Beraz, milaka ikasle dira euskarak irekitzen dituen aukerak galtzen ari direnak. Nabarmentzekoa da, haatik, euskara eskaintzen duten hezkuntza zentroak aztertzean, familien bi herenak sail elebiduna edo murgiltzea hautatzen duela. Ondorioz, eskaintza emendatu ahala, burasoen borondatea argia da euskararen aldera. Beraz, erabaki politikoak behar dira euskarazko eskaintza lurraldean gaindi masifikatzeko. Hori dela eta, lehentasunen artean, EHBAik belaunaldi berriengan pario bat egitea proposatzen du:

- Euskal hiztun osoak eta beraz, pertsona elebidunak segurtatzen dituen **murgiltze eredu irakas maila eta sail guzietan orokortzea**. Hots, ama eskolatik, lehen zein bigarren hezkuntza eta lizeoraino.
- Mailaz maila euskarazko eskaintza segurtatzeko **trantsizio bat** egitea, helburu gisa euskarazko ikaskuntza ibilbidea segurtatu, babestu eta erraztuko duena.
- **Hezkuntza formalekoak ez diren eremuak** (aisialdia, eskolaz kanpoko

aktibitateak...) euskaraz eskuragarri izatea, ikasgela barnean proposatzen den murgiltzea eraginkorra izan dadin.

- Irakaskuntza ziklo osoan zehar gero eta ikasle gehiago euskalduntzen den heinean, **goi mailako irakaskuntzaren euskarazko eskaintza aurreikustea**.
- Hezkuntza arautuan eta honetatik kanpo ere, haurrekin lan egiten duten **lanbideen formazioan euskara txertatzea** biziki garrantzitsua da.

Helduak euskalduntzeko estrategia eta planifikazioa

Euskararen ezagutza zabaltzeko beste eremu estrategikoa helduen euskalduntze eta alfabetatzea da. EHBairen ustez, arlo honi arreta handia ezarri behar zaio eta lurralde mailako estrategia azkar bat plantan ezartzea beharrezkoa da. Hizkuntza politika berri batek, egitura ezberdinetako langileak kopuru handiagoan euskalduntzeko beharra ekarriko du; eta, eskolaz haratago, familiei zuzentzea inportantea izanen da.

- **Euskara ikasteko doakotasunerantz urratsak egitea**, heldu diren urteetan euskalduntzeko pertsona kopurua zehaztuz. Helburu hori aldagai ezberdinen arabera ondorioztatuko da.
- **Gau Eskolen diruztapena berrikustea**, matrikula-prezioak apaltzeko, azpiegiturak hobetzeko, langileen lan-baldintza duinak bermatzeko edota irakasleak prestatzeko.

Lehentasunezko beste gaiak

• **Euskara funtzio publikoan.** Egun, lurraldeko erakunde publikoetan lan egiteagatik ez da euskararen jakintzarik galdegiten. Halere, Euskal Hirigune Elkargoa hasi da hainbat plangintza plantan ezartzen. Aldiz, herritar guzien hizkuntz eskubideak segurtatzeko eta kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzeko, bi neurri proposatzen ditugu:

- Funtzio publikoko egungo langileak euskalduntzeko eta euskararen erabilera zabaltzeko plan estrategiko bat zehaztu eta garatzea.

- Institutuzio maila ezberdinetako kontratazio berrietan hautagaiei oinarritzko hizkuntza eskakizuna galdegiten hastea. Gisa horretan, lurraldeko zerbitzu publikoetan euskararen erabilera zabaltzen hasiko da.

• **Euskararen arnaguneen babes eta sustapena.** Hizkuntza gutxitu guzientzat, hiztun dentsitate handiko eremuek garrantzi handia dute hizkuntzaren biziberritze prozesuan. EH Baik eremu horiek sortu eta babestearen aldeko politikak eta dinamikak plantan ezartzea proposatzen du, euskararen kasuan «Arnagune» gisa ezagutzen ditugunak.

• **Euskararen prestigioa emendatu,** euskal hiztunek atxikimendu handiagoa izan eta gehiago erabil dezaten, eta euskaraz ez dakitenek ikasteko motibazioa izan dezaten. Gisa berean, instituzioek eta haren ordezkariak komunikazioetan euskararen erabilera zabalduko lukete, euskararen ikusgarritasuna eta funtzionalitatea agerian emateko.

• **Euskararen aldeko dinamika zabala bultzatu.** Euskararen normalizazio prozesuak denon en-gaiamendua galdegiten du. EH Baik uste du denen arteko elkarrizketa eta lanaren bidez jauzi bat egiteko garaia dela. Euskalgintzarekin batera, jendarte zibilaren eta hautetsien arteko egiazko dinamika sozial amankomuna beharrezkotzat jotzen dugu. Dinamika sozial honek euskararen garapenaren aldeko jendarteko sektore berriak sentsibilizatzea permitituko luke.

Euskalgintzarekin batera,
jendarte zibilaren eta
hautetsien arteko egiazko
dinamika sozial
amankomuna
beharrezkotzat jotzen dugu

KULTURA

Gure lurraldeak kultur proiektu sendo bat behar du, euskal kulturan sustraitua izanen dena eta kultur-aniztasuna bermatuko duena

Kultura arlo estrategikoa da edozein jendartetan eta nola ez, Euskal Herrian. Egun, kapitalismoak sustatzen duen uniformizatorako nahiaren eraginez, munduko kultura anitz desagertzen ari dira. Kulturarik ez balego, herriok ez ginatke existituko.

Jendarte guzietan, kultura kohesiorako faktore garrantzitsua da. Euskal Herria bezalako estaturik gabeko nazio batean, garrantzia hori are handiagoa da. Gure lurraldeak kultur proiektu sendo bat behar du, euskal kulturan sustraitua izanen dena eta kultur-aniztasuna bermatuko duena.

Euskal kultura minorizatua da eta bere egoera, zaurgarria. Zentzu horretan, bere garapen eta normalizazioa segurtatu behar dugu. Haatik, azken hamarkadetan, euskal kulturak aitzinatze bat ezagutu du bereziki kultur eragile, sortzaile eta oro har herritarren lan eta bizitasunari esker.

Hizkuntza eta kultura elkarri lotuak dira. Izan ere, hizkuntza baten normalizazio prozesuan kulturak baitezpadako rola betetzen du. Horregatik, hizkuntza eta kultur politiken arteko harremana azkartu behar da. EHBaik hizkuntza guzietan egiten den kultura defendatzen du, baina euskal kulturari eta kultur arloa euskalduntzeari lehenetasuna ematen dio: Euskal Herrian defendatzen ez badugu, nehork ez du eginen.

Euskal Hirigune Elkargoak kulturaren eskumena zehaztu zuen 2019an eta lehen aldikoz politika publiko bat plantan ezarria izan da Ipar Euskal Herrian. **Alta, egun konpetentzia sakabanaketa gertatzen da,** hots, herriek, Elkargoak, Departamenduak, Eskualdeak eta frantses Estatuak baitituzte eskumenak kultura arloan. Egoera horrek lurralde ikuspegia kaltetzeaz gain, kultur eragileei ere zailtasun handiak sortzen dizkie, besteak beste, interlokutore anitz dituztelako.



© Bob Edme

Instituzioek kulturaren erronka bereganatzea garrantzitsua izanik ere, erabateko instituzionalizazioa saihestu behar delakoan gaude. **Kultura herrikoiak** jokatzen duen papera baitezpadakoa baita gure lurraldean, herrietan sustraitua eta autogestionatua delako, tokiko aktoreek auzolanean jarduten dutelako eta gazteria aktibatzen duelako.

Kultur proiektu partekatu gisa ulertzen dugu, komunitatea osatzeko ezinbesteko heldulekua, eta ezaugarri hauek kontuan harturik:

- Euskara eta euskal kultura biziberritzeko gako izanen dena eta kultur-aniztasuna segurtatuko duena.
- Herritar guzietan kulturarako duten eskubiak bermatuko duena, denentzat eskuragarri bilakatuz.
- Herritarrak ahalduzko ekarpena egiten duena.
- Tokiko sorkuntzari leku garrantzitsua ematen diona.
- Lanpostu berriak sortzea permititu behar duena.
- Ekimen autogestionatu zein herrikoien garapena eta inizatiba instituzionalak batezgarri egiten dituen.

Kulturak gure herriak
bizarazi behar ditu,
jendarte mailako kohesioa
azkartu eta egungo
indibidualismo tendentzien
aitzinean, jarduera
kolektiboak elikatu

Kultur proiektu azkar bat

Lurralde mailako kultur proiektu sendo bat garatzeko, EHBaik honakoa proposatzen du:

- **Eskumenak bertokiratzea.** Egungo sakabanaketa gainditu eta interlokutoreak gutitzea beharrezkoa da.
- **Kultur elkarte edo kultur guneen azkartzea eta hedapena lurraldean.** Azken urteetan ekoizpenen sustatzaile eta programatzaile ziren hainbat elkar-terren desagerpen edo ahultze prozesuen aitzinean, lurralde edo eremu geografikoetan baitezpadakoa da diruztapen publikoarekin gisa horretako eragileak edota guneak garatzea. Horrekin batera, azpiegiturak eta kultur gelen beharra nabarmentzen dugu. Kulturak gure herriak biziarazi behar ditu, jendarte mailako kohesioa azkartu eta egungo indibidualismo tendentzien aitzinean, jarduera kolektiboak elikatu.
- **Tokiko sorkuntza eta euskara.** EHBaik uste du euskal dantza eta euskal musikaren arloetan formakuntza oso bat beharrezkoa dela goi-mailetaraino. Gisa horretan koadroak (irakasle, prestatzaile...) sortuko dira. Berdenboran, antzerkia euskaraz sustatu behar da, euskarazko sorkuntzaren dibertsifikazioa bermatuz eta baita beste hizkuntzetan idatzitako antzezlanak euskaraz proposatuz ere.
- **Kultura herrikoia babesa.** Herritik sorturiko eta auzolanean gauzaturiko ekimen kulturalak babestea eta azkartzea beharrezkoa da, hala nola, Maskaradak edota Libertimenduak. Zentzu horretan, belaunaldi berriei transmisioa bermatzea biziki inportantea da, hezkuntza formalaren zein herritarraren bidez.
- **Irakaskuntzan euskal eta gaskoi kulturak integratu.** Euskal eta gaskoi kulturen ezagutza orokortzea beharrezkoa da. Euskal antzerkigintza, bertsolaritza edota euskal musika pedagogian integratu beharko lirateke. Eta baita Euskal Herriko kulturaren eta aktore garrantzitsuen ezagutza zabaldu ere.
- **Mugaz gaindiko lankidetzarako itunak.** Euskal Herriak bere osotasunean potentzial kultural izugarria du. Elkar trukaketak eta egitura ezberdinen arteko itunak behar ditugu.



© Bob Edme

Belaunaldi berriei
kultura herrikoia
transmisioa bermatzea
biziki inportantea
da, hezkuntza
formalaren zein
herritarraren bidez

HEZKUNTZA



© Guillaume Fauveau

Haur hezkuntzatik lizeoraino

Hezkuntzak gure garaiko erronkak ulertzeko eta horiei aurre egiteko gai diren herritarrak trebatu behar ditu. Euskal herritarron garapen integrala zein Euskal Herriaren garapen kolektiboaren zerbitzuan izanen den euskal hezkuntza sistema publikoa garatzea da EHBairen xedea.

Egun, Ipar Euskal Herriak ez du kompetentziarik ez baliabiderik hezkuntza eredu berri bat plantan ezartzeko. Frantses Estatuko hezkuntza sistema arrunt zentralizatuan, erabaki anitz lurraldeekin, hauen errealitateekin eta dituzten erronkekin loturarik egin gabe hartzen dira.

Ikastolak biharko euskal eskola publikoaren erreferentziazko ereduak izan behar dira

Eskola krisian da. Lehen urratsak lagundu behar dituen sistema, jakintza transmititu, desberdintasunak ezabatu eta biharko herritar ikasiak sortzeko rola duen hori, aurrekontu murrizketak ezagutzen ari da. Hezkuntza eta berdintasun helburu horiek gero eta okerrago eramanak diren arren, gobernuek hezkuntza sistema beste xede batzuetarako erabiltzeko baliatzen dute: herritarrak formatzea kapitalismoaren interesen arabera eta gero eta konplexu gutiagorekin ideologia nazionalista baten zerbitzura den nobela nazionala sortzea. Hezkuntzako langileek hezkuntza sistemaren berdintasunezko balioekiko atxikimendua dute, baina frantses Estatuko hezkuntza sisteman lehia, hierarkizazioa, desbalorizazioa eta estigma gero eta agerikoagoak dira.

Ipar Euskal Herrian euskarak bizi duen egoera kezkarria da hezkuntzaren esparruan ere. Sail guzietan aitzinamenduak egin diren arren, egun Seaskarena da haur hezkuntzatik lizeora murgiltze osoa proposatzen duen egitura bakarra. Eskola publikoek ez bezala, ikastola bakoitzak azpiegiturak eta irakasleak ez diren langileak diruztatu behar ditu eta instituzioek legez ezin dute horien finantzaketan parte hartu. Ikastolak, laikoak izan ki ere, irakaskuntza pribatu katolikoarentzat pentsatuak diren irizpideak betetzera behartuak dira.

EHBaiek doako eskola publikoaren alde egiten du eta Seaska eta behetik gora herri mugimendutik sorturiko herri eskolen ereduak osoki sustengatu. Ikastolak biharko euskal eskola publikoaren erreferentziazko ereduak izan behar dira.

EHBaik beste jendarte mota eta beste hezkuntza proiektu bat defendatzen ditu:

- **Sistema horrek euskarazko ikasketa ibilbide bat segurtatu**, babestu eta erraztuko du ikasleentzat. Horregatik ere, erronka bat da hezkuntza sistemaren abiapuntua 0 eta 2 urte arteko etapan kokatzea.

- Helburua herritar aske, kritiko, ahaldun, euskaldun eleaniztun eta aktiboak sortzea da. Hezkuntza ibilbidean zehar, ikasleak sistemaren erdigunean egon behar du eta erabakiak hartzeko, kultura parte hartzaileko eta belaunaldi helduagoekin harremanetan izateko hezia izan behar du.

- **Hezkuntza ikusmoldeak lankidetzat bultzatu behar du** lehiaketa beharrean, kolektiboa individualismoaren aitzinean eta progresioa performancearen parean.

- **Hezkuntza-komunitate aktiboa**, ikasleak, profesionalak eta burasoak inplikarazten dituen eta eskola eta hezkuntza formalekoak ez diren tokiko beste erakundeak biltzen dituen.

- **Pedagogia kritikoa, berritzailea eta emazte-gizonen arteko berdintasunean eta gutien-geen errespetuan hezten duena.** Jendartearen apustu nagusiei buruzko sentsibilizazioa proposatu behar da, hala nola, desberdintasun sozialak, klima eta biodibertsitatea, informazioa eta sare sozialak, adikzioak, sexu heziketa, etab.

- **Euskal Curriculuma osatzea**, gure errealtatera egokiturik, Euskal Herriko historia eta lurraldeko erronka nagusiak kontuan hartzen dituen.

Ipar Euskal Herrian sistema berri bat eraiki ahal izateko, hezkuntzaren antolaketa Ipar Euskal Herrian obratzaren garrantzia azpimarratzen dugu.

Bide horretan, EHBaik proposatzen du:

- **Ipar Euskal Herri mailako hezkuntza elkar-gune bat** sortzea, non jendarte zibilak rol garrantzitsua lukeen, lurralde osoan elkarrekin arituz. Gisa berean, Europa mailan eskaintzen diren baliabideak eta aukerak herri gisa perspektiba bat lantzeko erabili behar dira.

- Euskal Hirigune Elkargoan **hezkuntzaz arduratuko den lehendakariordetza bat eta Ipar Euskal Herri mailako ikuskaritza orokor bat** sortzea. EHBaik programak lurraldean egokitzeko ahalmena proposatzen du, "Itsasoz Haraindiko" lurralde batzuetan den bezala. Elkargoak Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoko hezkuntza sailekin harreman eta lankidetzarako ahala izanen luke, besteak beste, euskarazko pedagogia euskarrien sorkuntzarako.

- **Zerbitzu publiko ezberdinen arteko koordinazio gune bat** sortzea, hezkuntza politikak politika sozialekin lotuz (Haurtzaroaren Laguntza Soziala...).

- **Ahalmen urritasuna duten pertsonentzat etxe bat** sortzea Ipar Euskal Herrian, egoera horretan diren ikasleen eta langileen laguntza kudeatzeko. Hezkuntzaren eremua gaintzen duen proiektua izanki ere, egun departamenduaren esku den tresna lurraldean kudeatzea ezinbestekoa da ikasleen inklusioa bermatu nahi bada.

- **Murgiltze ereduaren orokortzea** ikasmilla guzietan eta formalak ez diren eremuen euskalduntzea (ikus "Euskara" atala); brebeta zein baxoa azterketak euskaraz egiteko eskubidea bermatua izatea hezkuntza sail guzietako ikasleentzat.

- **Hezkuntza zentroetako eraikinen antolaketa arraberritu:** kanpo espazioak berregokitu gune aske, hezkidetzaille bilakatzeko genero mistotasunaren garapenean.

- **Bigarren hezkuntzako ikasleen inplikazioa eta ezagutza bultzatzea lurraldeko bizian**, kultur eta gizarte proiektuak babestuz, bereziki Hego Euskal Herriko ikastetxeekin partaidetzak eginez.

Goi mailako ikasketak eta ikerketa

Ipar Euskal Herriak politika anbiziotsua behar du goi mailako irakaskuntzan eta ikerketan, gure garaiko erronkei aurre egiteko, bere aktibitate ekonomikoak dibertsifikatzeko eta bere lekua hartzeko ezagutzaren jendarte batean.

Egun ez dugu eskaintza osoko unibertsitaterik, nahiz eta 310.000 biztanle baino gehiago izan lurraldean. Baxoa duten ikasle kopuru oso ona dugu, baina goi mailako ikasketetan jarraitze maila ainitzez apalagoa da beste lurraldeekin konparatuz gero. Orotara, 6.000 ikasle inguru daude, hau da, 1.000 biztanleko 30 ikasle baino gutiago (100 Arroxelan, 200 Poitiersen). 18-24 urteko bi gaztetik bat baino gutiagok segitzen ditu ikasketak Ipar Euskal Herrian (bi heren Bordelen). Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateak (UPPA) 3.850 ikasle baizik ez ditu lurraldean (8.000 baino gehiago Pauen). For-

makuntza eskaintza partziala da, unibertsitate eskaintza oso apalarekin eta unibertsitateko poloak guti dira.

Urtero, 3.000 gazte inguru joaten dira lurralde-tik kanpora batez ere ikasketak segitzera, toki-ko eskaintza aski ez delako. Horietako batzuek ibilbide profesional bat hasten dute beste leku batzuetan, eta bertan finkatzen dira manera iraunkorren.

Ondorioz, lurraldean goi mailako hezkuntza eskaintza bat garatzea **inbertsio sozial eta ekonomiko bat da Ipar Euskal Herriarentzat**: gazteria lurraldean atxikitzearen ikuspegitik, familientzako ikasketen kostua murrizteko, enplegua sortzeko, jarduera berritzaileak erakartzeko, eta trantsizio ekonomiko, ekologiko eta soziala gauzatzeko gaitasunak handitzeko.

18-24 urteko bi gaztetik bat baino gutiagok segitzen ditu ikasketak Ipar Euskal Herrian

Goi mailako hezkuntza eskaintza bat garatzea inbertsio sozial eta ekonomiko bat da Ipar Euskal Herriarentzat

Goi mailako irakaskuntza

Goi mailako hezkuntza eskaintza garatzea lurraldean. Lehentasuna, Humanitate eta Gizarte Zientzietan lizentziatzeko unibertsitate karreretan ezartzea da, egungo eskaintzaren eskasia ikusirik.

Lurralde mailako kontseilu bat sortzea, Euskal Elkargoko hautetsiak, formakuntzako eragileak, eragile ekonomikoak, sindikatuak, eragile sozialak, ikasle elkar-teak, ikasleen burasoak... bilduz.

Irakasleak eta ikerlariak erakarri eta sare bat egituratu ikasketa sail berriak sortzeko, eta Euskal Herriari buruzko ikerketa proiektuak garatzeko.

Bilakaera instituzionalarentzat beharrezkoak diren **konpetentziak emendatu**, Ipar Euskal Herriaren ezagutza eta gaitasun handiko ekintza publikoko teknikariak formatuz.

Ikasleen harrera baldintzak antolatu (etxebizitza, garraioa) eta tokiko elkarte, kultura eta kirol esparruetan inplikazioa sustatu.

Sail guzietan euskaraz ikasteko eskaintza orokortu eta emeki euskara hutsezko kurtsuak ireki.

Beharrezkoa da ikasleek ibilbide akademiko bat ukaitea Euskal Herri mailan. Ildo horretan, **Hego Euskal Herriko unibertsitateekin** (Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustu, Mondragon) zubiak indartzea baitezpadakoa da, tituluak sortzeko eta mugaz gaindiko ikerketak abiarazteko.

• **Bizian zeharreko formakuntzaz eta ezagutzen bereizketak gainditzea:** eremu akademikoaren eta lurraldearen arteko zubiak sortu eta hobetu. Jarkintza akademikoa gehiago atera lurraldera (teknologiaren transferentzia, dibulgaziorako ekimen zientifikoak...), eta lurraldeko eragileak gehiago inplikatu campusetan (denbora libreko unibertsitatea, eragileen ekitaldi soziokulturalak...).

• **Formakuntza profesionala:** Ipar Euskal Herriko elkarrizketa sozialeko instantzia baten baitan, sindikatuekin, enpresariekin eta lanbide heziketako erakunde publiko zein pribatuarekin lan egin, formakuntza profesional ziurtagiridun eta kualifikatzaileen garatzeko, bereziki:

- Trantsizio ekologiko, ekonomiko eta sozialeko lanbideetan: laborantza; osasuna eta zaintza; energia, garraioa eta eraikuntza; irakaskuntza eta formakuntza (ikus Ekonomia, Laborantza, Metamorfosia ekologikoa edota Osasungintza-ren atalak).

- Langileak euskalduntzeko formakuntzetara bideratzea.

- Hego Euskal Herriko instituzioekin eta lanbide heziketako zentroekin lankidetzaren programak plantan ezartzea.

• **Ikerketa:** Euskal Herriko ikerketa egitura guzien arteko kolaborazioa indartzea proposatzen dugu. Bestalde, EHBAik proposatzen du Ipar Euskal Herriaren euskal kulturaren eta hizkuntzaren ikerketaren bikaintasuna atxikitzea eta beste gai batzuen ikerketan ere aktibo bilakatzea, lurraldeko gai nagusiei arreta berezia eskainiz.

Euskal Herriko
ikerketa egitura guzien
arteko kolaborazioa
indartzea
proposatzen dugu

HARRERA ETA INTEGRAZIOA



Kontinenteen eta estatuen arteko migrazio-prozesuak emendatzen ari dira. Milioika pertsona bizi hobe baten bila dabiltza, gerlatik, errepresiotik, pobreziatik edo krisi ekologikoaren ondorioetatik ihesi. EHBaik, sufrimendu hauen neurria hartu eta migrazio politika humanista bat defendatzen du.

Migrazio prozesu horietatik jalgitzen diren pertsona gehienek Euskal Herria iraganbide gisa hartzen badute ere, batzuek bertan instalatu nahi dute. Bereziki frantses Estatutik Euskal Herrira jitea erabakitzen duten pertsona horiei eta heldu berriei harrera egitea beste erronka garrantzitsu bat da lurraldearentzat.

Migrazio politika

Migrazio-prozesu gogor baten ondotik gure lurraldera heldu diren pertsona anitz legez kanpo eta prekariedade egoera handian aurkitzen dira. EHBairen ustez, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak aitortzen duen migraziorako eskubidea ezin da soilik Iparraldeko herrialdeetako herritarrentzat izan. Horregatik EHBaik proposatzen du:

- **Migrazio-politika humanista eta errealista bat defendatzea**, non lehentasuna izan den pertsona guzien eskubideak bermatzea. Hori ez da EHBaik salatzen dituen frantses Estatuan 2024an promulgaturiko Immigrazio Legearen eta Europar Batasuneko Migrazio eta Asilo Itunaren kasua. Bere mailan, Ipar Euskal Herriak erakutsi du beste ikuspegi humanitario bat posible dela. Gure herrietan errefuxiatuak aterpetu izanak edo elkarte eta Euskal Elkargoaren partaidetzarekin Baionan sorturiko Pausa larrialdiko harrera zentroa bezalako adibideek, dinamika eta politika humanista horretan segitzera bultzatzen gaituzte. Zentzu horretan, garrantzitsua iruditzen zaigu Ipar eta Hego Euskal Herriko instituzioen artean indarrean den elkarlana sendotzea.



© Guillaume Fauveau

- **Adingabe eta adin nagusiko gazteen arreta indartzea.** Haien babesak (aterpe batetik iragaiten dena eta, beraz, ostaturako aterabide batekin) lehentasuna izan behar du, bistan dena. Ezinbestekoa da, halaber, eskolatzeko edo ikaskuntzarako laguntza ukaitea, baita administrazio mailako desmarxa guzientzako. Haurrentzako Laguntza Sozialaren eskumenak, haurrak babesteko politikaren eremuan ekin-tzak abiaraztea permitituko luke, arrisku egoerak prebenitzeko eta atzemateko.

- **Zirkulazio librerako eskubidea bermatzea.** Euskal Herrian hamar pertsona zendu dira 2021az geroztik, horietako zazpi Bidasoa ibaia zeharkatu nahian, eta beste hiru burdinbidean, Ziburun. Giza tragedia hau pertsonen zirkulazio librerako nazioarte mailako eskubidea etengabe urratzearen ondorioa da. Zirkulazio librerako oztopo hauek Euskal Herrian eguneroko errealitatea dira, EHBaik errefusatzeko dituen polizia-kontrol iraunkor eta neurritz kanpokoe-kin, hain zuzen.

- **Atxikitze bidegabearekin bukatzea.** Hendaia-ko Atxikitze Administratiboko Zentroan diren

Giza tragedia hau pertsonen zirkulazio librerako nazioarte mailako eskubidea etengabe urratzearen ondorioa da

pertsonen kopuruak emendatze kezkarria izan du 2023an. Gero eta jende gehiago dute bertan, kanporatuak izateko neholako agin-durik ez badute ere. Atzeritarrak gaizkile gisa tratatuz, botere publikoak ideia hori zabaltzen entseatzeko dira. Horrelako manipulazioak eta pertsonen atxikitze arbitrarioak geldiarazi be-har dira.

- **Jendartean elkartasun sare eta ekintzak he-datu eta indartzea,** elkartasun elkarten lana lagunduz. Euskal Herrian, herritarren elkarta-sun sareak antolatuak dira, migratzaileei harre-ra egiteko, dagozkien eskubideen berri emate-ko, jendartea sentsibilizatzeko eta oinarritzkoak diren produktuen (jantziak, oinetakoak, higiene produktuak...) bilketa eta banaketak antolatze-ko. Hendaian, Irunen, Urruñan, Baionan, Ami-kuzen edo Baigorri gisa honetako desmar-txak plantan ezarriak izan dira, adibide batzuk aipatzearen.

EHBaik ez du onartzen mundu guzira deshuma-nizatzen duen migrazio politikarik. Behar diren neurriak hartu behar dira gisa honetako dra-mak gehiago errepika ez daitezela.

Harrera

Urtero jende andana bat heldu da lurraldera bizitzera, horietako zati handi bat frantses Estatatutik. EHBairentzat garrantzitsua da biztanle heldu berri horiek ahalik eta lasterren lurraldeko dinamiken parte sentiaraztea. Horretarako, Ipar Euskal Herri mailako **harrera politika integral bat** xutik ezartzea proposatzen du, helburu hauekin:

- Lurraldeko elkarte eta kultura sarea, errealtate ekonomikoa, antolaketa (Txik Txak edo Biltza Garbi, adibidez), euskarazko irakaskuntza eta helduen euskalduntzerako kurtsoak, demokrazia parte hartzaileko instantziak edota Euskal Herriko kultura eta historia ezagutaraztea. Lan hau hainbat herritan egiten hasia da, erraterako, Urruñako herrian.
- Harrera politika hau Ipar Euskal Herri mailan eztabaidatu eta adostuko litzateke, jendarte zibileko eragile ezberdinen eta hautetsien artean, lurraldearen egungo dinamikak islatuko lituzkeen eduki baten proposatzeko.

Garrantzitsua da biztanle heldu berriak ahalik eta lasterren lurraldeko dinamiken parte sentiaraztea

5.

KOOPERAZIOAN OINARRITURIKO PROZESU PARTE HARTZAILEA

Programa hau aplikatu ahal izateko, prozesu demokratiko eta parte hartzaile baten bidez herri agenda berri bat eraiki behar dugu, fase berri eta aurrerakoi bat irekitzeko.

Tokiko demokrazian inspiratzaileak diren esperientziak herrialde anitzetan garatzen ari dira. Hego Euskal Herriko hainbat herri desmartxa honetan bereziki inplikatuak dira. EHBaik uste du Ipar Euskal Herria ere halako prozesu bat eramateko esperimenterako lurralde izan daitekeela ondoko urteetan. Lurralde honek duen **kapital soziala azkarki aktibatzen eta mobilizatzen** gai izan behar dugu.

HIRU EREMUREN ARTEKO PROZESUA

Gobernantza eredu berrietan pentsatu behar da. EHBaik **instituzioen, komunitatearekiko engeiamendua duten eragile ekonomikoen eta jendarte zibil antolatuaren arteko elkarrekin-tzan** oinarritzea proposatzen du. Hiru eremu horien arteko osagarritasunak eta sinergiak ahalbidetzen dute lurralde gisako proiektua egituratzea. Horretarako, elkarlanerako espazio eraginkorrak sortu behar dira.

- Eredu hori, Ipar Euskal Herriko eskalan ez ezik, **herri mailan abian jartzea lehentasuneko da**. Izan ere, herriak eta eskualdeak dira herritarren bizitzeko hurbileko tokia eta Herriko Etxeak, herritarrengandik hurbilen diren instituzioak.

- **Aktore ekonomikoak ere ezinbesteko eragileak dira**, lurraldea moldatzen dutelako eta demokrazia ekonomikorik gabe demokraziarik ez dagoelako. Hala, Ipar Euskal Herriaren geroari atxikiak diren enpresa anitzak mobilizatu nahi ditugu, egungo erronkei buru egiteko kolektiboki eraiki nahi dugun trantsizio prozesuaren parte izan daitezen.

- **Jendarte zibil antolatu bat ezinbestekoa da** edozein prozesuren ibilimolde demokratikorako. Beren eskubideak hobeki defendatzeko herritarrak lotzea eta antolatzea permititzen du. EHBaik argi du jendarte zibilaren autonomia errespetatu behar dela. Jendarte zibila da bultzatu nahi dugun prozesuaren oreka bermatzen duen hiru erpinetako bat: jendartearen kezka, behar eta aldarrikapenetatik ez urruntzea ahalbidetzen du.

Elkarrekin kooperatuz, lurralde aurrerakoi eta berritzailea bilakatzen ahal dugu Euskal Herria

EUSKAL LURRALDEEN ARTEKO LANKIDETZA

EHBai Euskal Herriaren berbatzearekin en-
gaiatua da. Ildo horretan, programa politikoak
behin baino gehiagotan proposatzen du lu-
rralde ezberdinen arteko harremanak sendo-
tzea.

Gure gaitasunak elkar trukatuz, antolatuz eta
elkarrekin kooperatuz, gero eta tenkatuagoa
den nazioarteko testuinguru batean euskara
eta euskal kultura desagertzen ez ikusteko
dugun borondate eta erabakitasantarekin, lu-
rralde aurrerakoi eta berritzailea bilakatzen
ahal dugu Euskal Herria. Ildo horretan, mugaz
gaindiko harremanak, esperientzien ezagutza
eta arlo orotan gure lurralde zein jendarte-
ren garapena segurtatuko duten proiektu zein
dinamika berriak plantan ezartzearen alde egi-
ten dugu.

Mugaz gaindiko harreman eta proiektuak
askotarikoak izaten ahal dira. Azaldutako
prozesuaren hiru eremuak barnebidu behar
ditu: instituzioak, eragile ekonomikoak eta
jendarte zibila.

Egun, gero eta manera naturalagoan bul-
tztatzen dira instituzioen arteko harrema-
nak eta hainbat herriren arteko ahaidetzeak
indarrean dira, usu arrunt aktiboak. Alta,
mugaz gaindiko eskumenak instituzio ez-
berdinen artean banatzen dira, hots, Pirinio
Atlantikoetako Departamendua eta Akitania
Eskualdearekin batera. EHBaik urrats be-
rriak egitea proposatzen du:

- **Ipar Euskal Herriaren mugaz gaindiko eskumena azkartzea**, erraterako, Departa-
menduak dituen konpetentziak bere gain
hartuz. Horrek lurralde proiektuaren ideia
eta gogoeta azkartuko luke eta aukera zein
baliabide gehiago eskaini.
- **Mugaz gaindiko proiektuetarako europar
funtsak baliatzea** Euskal Herria egitura-
tzeko.
- **Eragile ekonomiko, sozial, kultural edota
akademikoekin batera**, gogoeta amankomu-
nak egitea lurralde mailako erronkak elka-
rrekin definitzeko. Instituzioez gain, jendarte
zibilaren dinamikak indartzea eta garatzea
beharrezkoa da.
- Euskal Hirigune Elkargoa, Euskal Autono-
mia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erki-
degoaren arteko **Europa mailako elkargo
baten sorrera gogoetatu**, erronka amanko-
munak finkatzeko: hezkuntza, osasungintza,
ekonomia, ingurumena, hizkuntza, kultura,
mugikortasuna... bezalako gaietan.
- **Udalbiltza, udalerriez osaturiko nazio ins-
tituzioaren azkartzea** eta burujabetza kon-
kreturako proiektuak garatzea.

6.

EHBAI, ETORKIZUNA ERAIKITZEKO

EH Bai Euskal Herriaren burujabetzaren ideiarekin eta balore ezkertiar, feminista zein ekologistekin bat egiten duten **herritar guziengana zuzentzen da**. Barne demokrazia eta indar kolektiboa printzipio dituen mugimendua gara, baitezpadakoa baita jendeak parte hartzeko eta erabakiak hartzeko ahalmena ukaitea.

Ezkerreko abertzaleok azken urteetan aitzinatu eta hainbat eremutan **rol erabakigarria** jokatzen dugu. Bide horretan gero eta mugimendu indartsuagoa lortuz, eta kide zein jarraitzaile berrien ekarpenekin, gaitasun handiagoa izanen dugu gehiago sozial, politiko eta instituzionalak lortzeko eta lurraldeak behar dituen transformazioak gauzatzeko.

Hori dela eta, **EH Bai** gurekin bat egitera **gomita egiten dizu**. Bertakoa eta nortasun propioa duen mugimendu irekia garelako eta etorkizunera begira, determinazioa dugulako Euskal Herria egungo desafioen aitzinean prestatzeko. Zurekin, are gehiago izan nahi dugu!

Kidetu hemen:

adhesion.ehbai.eus/eus/kidetza.php

www.ehbai.eus

Sareak:

Facebook: www.facebook.com/EHBai

Instagram: www.instagram.com/ehbai

Bluesky: [@ehbai.bsky.social](https://bsky.app/profile/ehbai.bsky.social)

Telegram: t.me/EHBAI

Harremanetarako:

harremana@ehbai.eus

SOMMAIRE

1.- ANALYSE DE LA SITUATION	83
Le monde à la croisée des chemins	83
Le Pays Basque et sa volonté de se gouverner	84
2.- SOUVERAINETÉ, POUR DÉCIDER ICI	87
Statut d'Autonomie pour le Pays Basque Nord	88
3.- UN PROJET DE PAYS POUR UNE MEILLEURE QUALITÉ DE VIE	91
Une perspective écosocialiste	91
Une vie digne pour toutes et tous	93
4.- PROPOSITIONS THÉMATIQUES	95
Modèle économique	96
Agriculture	102
Pêche	109
Métamorphose écologique	111
Social	116
Santé	122
Foncier et logement	126
Féminisme	131
Euskara	135
Culture	139
Éducation	142
Accueil et intégration	146
5.- UNE DÉMARCHE PARTICIPATIVE ET DE COOPÉRATION	149
Un processus ancré sur trois pôles	149
La coopération entre les territoires basques	150
6.- EHBAI, POUR CONSTRUIRE L'AVENIR	151

PRÉSENTATION

Les crises mondiales qui ne cessent de s'installer impactent directement le Pays Basque. L'insécurité et l'incertitude générées par le système capitaliste marquent notre vie et notre paysage politique. Nous vivons une grave crise qui menace notre société, et ne pouvons plus rester dans l'inaction. Il est nécessaire d'enclencher un virage à 180°, de changer radicalement de position et de proposer des solutions nouvelles, de faire tout ce qui est à notre portée pour que tout le monde puisse vivre mieux dans un système plus égalitaire et respectueux de son environnement.

Pour cela, EHBai propose un projet pour toutes les citoyen·nes, pensé à partir du Pays Basque et adapté à ses besoins. Ce projet s'enrichira par la suite des apports faits par les différents secteurs de la société, mais fixe dès aujourd'hui un horizon clair, une ligne directrice : nous voulons que la plupart des décisions soient prises dans notre territoire afin que nous ayons le contrôle de nos vies et puissions construire notre propre réponse aux défis auxquels nous faisons face. Notre projet est transformateur et démocratique. Il se focalise sur les personnes et la nature, replace le gouvernail de notre avenir entre les mains des citoyen·nes et des acteurs sociopolitiques locaux. Ici, c'est possible. Construisons ensemble notre avenir.

1.

ANALYSE DE LA SITUATION

LE MONDE À LA CROISÉE DES CHEMINS

Les événements politiques mondiaux influent directement sur notre territoire. L'ordre néo-libéral n'a pas disparu. Nous vivons **une nouvelle répartition des pouvoirs**, car les États-Unis perdent progressivement leur hégémonie économique et militaire au profit des nouvelles puissances du Sud global.

La surenchère sécuritaire, la lutte pour les ressources, la recherche constante du profit, les conflits entre religions, **le militarisme et les guerres** s'entremêlent dans cette lutte de pouvoir. La guerre en Ukraine ou le génocide en Palestine en sont les exemples les plus criants, mais ils ne sont pas les seuls. Partout, le droit international s'efface devant les intérêts des acteurs les plus puissants, qu'ils soient étatiques ou privés. Le droit des peuples est partout piétiné. Même l'avenir de l'Humanité, mis en péril par le réchauffement climatique et la chute de la biodiversité, semble ne pas peser face à ces intérêts à court terme. L'État français n'échappe pas à cette logique. Au sein d'EH Bai, nous refusons de baisser les bras et réaffirmons notre soutien aux droits des peuples, à la défense de valeurs humanistes de solidarité et de justice sociale, et pensons que le climat et la biodiversité sont des

Nous réaffirmons notre soutien aux droits des peuples, à la défense de valeurs humanistes de solidarité et de justice sociale

biens communs planétaires que nous devons défendre comme tels.

Le modèle capitaliste a provoqué une telle **crise écologique et sociale** qu'il remet en question le système économique d'exploitation sans limite des ressources naturelles et des énergies fossiles sur lequel il se base. Le défi le plus important de cette crise écosociale est l'urgence climatique, car le système capitaliste a mis en péril la survie de l'Humanité et des autres espèces vivantes. La multiplication des conflits liés à l'eau et aux ressources, les migrations climatiques ainsi que les pénuries alimentaires sont d'autres manifestations de cette crise.

Le système capitaliste nous entraîne vers une collision inévitable avec la frontière biophysique. Il n'existe pas d'autre alternative : la métamorphose écologique est **urgente**. Nous devons baisser nos consommations, décarboner et transformer le système de production en passant aux énergies renouvelables. Sans actions rapides et efficaces, nous allons vers plus de souffrances humaines, et la crise écologique va se répandre irrémédiablement.

L'inflation, la hausse des prix et la baisse du niveau de vie sont des indicateurs importants de la crise économique. Les grandes entreprises ont profité de cette situation. Elles ont affaibli

le pouvoir des États, pendant qu'elles augmentaient de façon exponentielle leurs dividendes. Il existe de la richesse, mais elle est détenue par un nombre toujours plus restreint de personnes.

L'Etat français a rompu le « contrat social » qui assurait la sécurité des besoins de ses habitant·es, augmentant ainsi la crise politique et sociale. Les gouvernements n'ont plus le soutien de leur population et ne peuvent plus garantir la solidarité collective ni les besoins élémentaires tels que l'alimentation, l'énergie, le logement, l'éducation, la santé... La tendance est aujourd'hui à l'externalisation et à la privatisation des services publics, à la mise en place de politiques d'austérité qui accentuent la précarité et dégradent les conditions de vie des citoyen·nes.

Dans ce contexte de crise globale, **les flux migratoires se sont multipliés**. Les pays du nord les abordent d'un point de vue sécuritaire. Ils ferment les frontières et engendrent un désastre humain. Certains veulent ignorer ce phénomène, d'autres le considèrent comme une menace et adoptent une position à la fois défensive et agressive, comme le fait le gouvernement français. Nous choisissons quant à nous de défendre les droits de toutes les personnes et de travailler avec toutes les nouvelles·aux arrivant·es à la cohésion de notre territoire. C'est cette position que choisit EHBai.

Partout dans le monde **l'extrême droite** instrumentalise la situation sociale désastreuse provoquée par les politiques néo-libérales. Elle profite du désarroi des électrices et des électeurs déçu·es de voir de telles politiques menées par des gouvernements qui se revendiquent de gauche. L'extrême droite et ses idées ont réussi à s'introduire dans divers gouvernements et institutions avec comme axe directeur un discours xénophobe et raciste. Elle pousse les gouvernements à pratiquer des politiques économiques ultralibérales et des politiques sociales rétrogrades. Ni l'État français ni le Pays Basque ne sont épargnés par cette montée en puissance de l'extrême droite.

Dans ce panorama, **quelques lueurs d'espoir arrivent encore à percer**. De nombreuses voix et mouvements souverainistes ou indépendantistes de gauche, féministes et écologistes réclament un modèle de société plus progressiste dans lequel le contrôle démocratique serait à nouveau exercé par les citoyen·nes; un modèle égalitaire, solidaire, basé sur une identité locale inclusive et sur ses richesses sociales et culturelles; un modèle qui croit en la solidarité internationale.

Les processus d'émancipation menés par **les nations sans État** fournissent des raisons d'espérer. Comme au Pays Basque, en Corse, en Kanaky, en Polynésie, en Catalogne, en Irlande, ou encore en Écosse, les mouvements souverainistes progressistes se renforcent. Nous pensons que la dynamique d'émancipation de ces mouvements peut être une source d'inspiration pour les mouvements progressistes du monde entier, et notamment en Europe.

Aujourd'hui, nous ne pouvons pas savoir quelle direction prendra le monde. Nous sommes **à la croisée des chemins**. Si nous ne construisons pas une société plus juste, avec une meilleure répartition des richesses, nous laisserons la pauvreté et la misère des populations se développer. Si nous ne changeons pas radicalement notre modèle économique basé sur la surproduction et la surconsommation, nous serons contraint·es d'assister à l'effondrement économique et écologique de notre société. Si nous ne renforçons pas la démocratie, nous prendrons le chemin d'un autoritarisme brutal. **À notre échelle, au Pays Basque, nous voulons nous donner les moyens de répondre à ces défis.**

LE PAYS BASQUE ET SA VOLONTÉ DE SE GOUVERNER

Le Pays Basque souffre de la situation mondiale. Nous sommes soumis·es aux décisions venant de Paris, de Madrid, de Bruxelles ou encore d'autres centres de pouvoirs, et cela

met notre avenir en péril. Ces mesures ne tiennent pas en compte des réalités locales ni des besoins des citoyen·nes. **Nous n'avons pas assez de moyens** à notre disposition pour prendre nos propres décisions et mettre en œuvre des politiques pour le bien-être de nos citoyen·nes.

La situation au Pays Basque Nord

Le Pays Basque Nord est un territoire très attractif notamment pour les habitant·es de l'État français, ce qui a pour conséquence une **croissance de notre démographie**. Cette dynamique se concentre sur la côte, pendant que l'intérieur de notre pays se désertifie. Notre identité, notre langue, notre culture, ainsi que notre modèle socio-économique sont face à de nouveaux défis. Nous devons prendre très au sérieux la problématique des nouvelles et nouveaux arrivant·es afin qu'elles et ils s'intègrent mieux à notre réalité. Les activités économiques se centralisent sur la côte et engendrent une augmentation des difficultés à se loger, une artificialisation des terres agricoles, une disparition progressive des agricultrices et agriculteurs, et une multiplication des mobilités contraintes génératrices de gaz à effet de serre.

Le vieillissement de notre population est un autre enjeu important. Durant les 15 dernières années, la proportion de personnes âgées de plus de 60 ans a très largement augmenté au Pays Basque Nord. Selon les prévisions, il y aurait plus de 20 000 personnes supplémentaires de cette tranche d'âge dans les 10 années à venir. De nouveaux besoins de logements adaptés et de services d'aide vont apparaître. Nous aurons également besoin d'une politique permettant de faire face à l'isolement des personnes âgées et d'améliorer les conditions de travail des personnes du secteur.

La digitalisation et l'intelligence artificielle amènent aussi de profonds changements au sein de notre société. Elles impactent nos

